



Azpeitiko Hezkidetza eta Tratu Onak sustatzeko Programa



azpeitikoudala
denon artean

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA.....	4
2.1 EGITASMOAREN BEHARRA	
2.2.BERDINTASUNA	
2.2.1 SEXU-GENERO TEORIA	
2.2.2 GENERO IDENTITATEAREN ERAKETA	
2.2.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA	
2.2.4 GENERO IKUSPUNTUA	
2.2.5 HEZKIDETZAREN BEHARRA	
2.2.6 BERDINTASUNAREN INGURUKO LEGEDIA	
2.3 GENERO INDARKERIA	
2.3.1 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA GENERO INDARKERIA	
2.3.2 ZER DA INDARKERIA?	
2.4 TRATU ONAK	
2.4.1 HARREMAN OSASUNTSUAK ERAIKITZEKO OSAGAI NAGUSIAK	
2.4.2 MAITASUN HARREMANAK	
2.4.3 SEXUALITATEA	
2.5. LAN FILOSOFIA	
3. HELBURUAK.....	19
3.1 HELBURU NAGUSIA	
3.2 HELBURU ZEHATZAK ETA NON KOKATZEN DIRA GURE PROIEKTUAN	
4. PROIEKTUAREN ESKEMA.....	23
4.1. TREBAKUNTZA	
4.1.1. HEZKUNTZA ESPARRU FORMALEAN	
4.1.2 TREBAKUNTZAKO EDUKIAK	
4.2. AHOLKULARITZA ZERBITZUAK	
4.2.1. AHOLKULARITZA PEDAGOGIKOA	
4.2.2. AHOLKULARITZA HERRIKO HAINBAT ESPARRUTAN	
4.3. GIZARTERATZEA	
5. 2022-23 IKASTURTEETARAKO LAN PLANA.....	32
5.1 DEIALDIARI EGINDAKO BERRIKUNTZAK	
6. KRONOGRAMA ETA KOORDINAZIOA.....	33
7. METODOLOGIA.....	35
7.1 IKASLEEKIN EGINGO DEN METODOLOGIA	
7.2. IRAKASLE ETA GURASOEKIN EGINGO DEN METODOLOGIA	
8. EBALUAZIOA.....	38
8.1 IKASLEEN EBALUAZIOA	
8.2. HAUR ETA GAZTEEN EBALUAZIOA	
8.3. IRAKASLEEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA	
8.4. GURASOEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA	
8.5. IKASTETXEEKIN EBALUAZIO OROKORRA	
8.6. UDALAREKIN EBALUAZIOA	

1. SARRERA

Abian jarri ditugun praktikatik eta ondorioetatik abiatuz **erronka** eta **berrikuntzak** proposatzera gatoz. Aurkezten dugun proiektu hau urtez urte, beharren arabera zehazten joango den lanaren marko teoriko zein praktikoa da. Bertan genero-indarkeriaz, indarkeria ezberdinez (mikromatxismoak, sexu-gehiegikeriak, tratu txar fisikoak, psikikoak...), erantzunkidetasunaz, sexualitateaz, “Beldur Barik” jarreraz zer ulertzen dugun azaltzen dugu, eta emakume eta gizonezkoen artean aukera berdintasuna lortzeko, lan honekin lortu nahi ditugun helburuak zehazten ditugu.

Gure egitasmo hau faseen arabera aplikatzen da, ikasturtez-ikasturte zehazten joaten den zerbait baita, beraz ebaluaziora irekita dagoen ideia multzoa da. Izan ere, gure jardueretan malguak izaten gara, ikastetxeen eta herritarren beharretara egokitzen gara ikasturtez ikasturte.

Beraz hurrengo urteetan proposatzen den egitasmoa, herriko Ikastetxeetan (Ikasberri, Karmelo Etxegarai, Urola eta Iraurgi) orain arte egindako lana indartu eta jarraitzeaz gain, egitasmoa herrira zabaltzen indarra jarriko da, aisialdian gure presentzia indartuz, hezkidetzat foroan eta emakumeen mahaian egiten den lana sozializatuz eta gazteak beraien egoeraz hausnartzen jarritz.

Berdintasunaren alorrean EAEko VII. planak proposatzen dituen erronkak lau esku-hartze eremu inguruan antolatzen dira: “Gobernu Ona” (erakunde-aldaketarako eta/edo barne funtzionamendurako erronkak, administrazio publikoetan) eta herritarren esku-hartzerako 3 ardatz nagusi (izaera sozialeko erronkak): emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak babestea.

Gure egitasmoak bertan jorratzen diren gaiak lantzen ditu:

- Ikastetxeetatik herrira hezkidetzat egitasmoa islatuz. **Eskoletan urteetan burutzen ari garen lana herrian ikusarazi nahi dugu, egitasmoa parte hartzailea bihurtu, pauso berri bat eman eta herri mailako jauzia egitea proposatzen dugu.** Horretarako foro ezberdinak sortuko dira kultur taldeekin, mugimendu sozialekin...
- Hezkuntza formalean eta ez formalari zuzendutako jarduerak proposatuko ditugu. **Irakasle, ikasle, hezitzaile eta gurasoentzat zuzendutako trebakuntzak**
- Udaleko hainbat sailekin koordinazioa burutzea planteatzen dugu.

Horrez gain **proiektuaren gizarteratzea indartzea proposatzen dugu.** Bestalde, argi dugu aholkularitza pedagogikoaren beharra, ikastetxe bakoitzari *in situ* erabiltzeko aukera eskainiko zaiolarik.

Azkenik, Azpeitiko Udaleko Berdintasun Alorreko beste jarduerekin koordinazioa egitea planteatzen dugu. Beraz, herrian hezkidetzat eta tratu onak modu integratzean landu nahi ditugu; **berdintasun alorreko** teknikariarekin eta **hezkidetzat arduradunekin** harreman estua edukiz.

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, gai guzti hauen oinarri teorikoa azalduko da, programan planteatzen diren gaien kontzeptuak argituz.

2.1. EGITASMOAREN BEHARRA

Hainbat arrazoi daude esleipen honek proposatzen dituen gaiak egitasmo bakar batean biltzeko. Gure ustez horiek denak lotura zuzena dute, eta prebentzio programa osatu honen bidez Azpeitiko biztanleen beharrei erantzun zabala eskaintzen zaie.

- **Indarkeria matxistari dagokionez:** Pertsona batzuk bortizkeria eragitera bultzatzen eta besteak bortizkeria jasateko prestatzen dituen sistemak oraindik martxan dirau gurean. Oraindik ere, neskak eta mutilek sozializazio prozesu ezberdina jasotzen dute, **sexu genero sistemaren irizpideak** iraunkortuz. Horren ondorioz pertsona ezin da bere osotasunean garatu. Aurrez ezarrita dauden rol eta irudikapenek **gazteen gaitasun ororen garapena baldintzatu eta mugatzen baitute.** Hau da, prozesu honetan, gazteek direnari eutsi beharrean, haiengandik espero dena izatea ikasten dute. Modu honetan, **heldu bilakatzeko prozesuak ez ditu pertsona autonomo eta askeak ekoizten,** zalantza eta menpekotasunez betetako norbanakoak baizik. Oinarri hauen gainean, ezin da jendarte baketsu eta abegikorrik eraiki. **Ondorioz, bortizkeria arazoa eta harreman ez osasuntsuak** oso ohikoak dira gure artean.
- **Gizaki sexudunak garela ezin dugu ukatu:** Horra hor programa honen beste ildo nagusia. **Gure izate sexuduna modu ez baztertzailean transmitituko da;** betiere, norbera bakarra eta errepikaezina den aldetik, bere izateko era, sentimenduak, zein bizipenak eta jokaerak onartuz, errespetatuz, ulertuz eta heltze-prozesu horretan gazteak lagunduz. Horregatik, **hezkidetza eta hezkuntza sexualak egitasmo honetan bere toki nagusia izango du.** Sexologiak sexuen ezberdintasunak ez du inolaz ere pertsonen sexuarengatik baztertzea edota haien harremanak hierarkizatzea nahi izan, alderantziz, hezkuntza sexualaren hainbat **osagai nagusiak honako hauek dira: hezkidetza, indarkeria matxistaren prebentzioa, harreman afektibo osasuntsuen lanketa, sentimendu eta emozioen garrantzia...** Beraz, bi gai horiek programa berean uztartzea oso egokia dela iruditzen zaigu, guztiz bateragarriak eta osagarriak bilakatzen baitira.

2.2. BERDINTASUNA

2.2.1. SEXU-GENERO TEORIA

Sistema patriarkalak, historian gizartea antolatzeke nagusitu den moduak, balio handiagoa eman die "gizonek" ziren jarraibideei "emakumerenak" zirenei baino, eta horrek emakumea gizonaren menpe egotea ekarri du. Sistema hau (patriarkatua) emakumeek eta gizonek gizartearekin erlazionatzeko duten modua azaltzen eta

justifikatzen saiatu da, horretarako bi sexuen artean dauden “berezko desberdintasunak edota desberdintasun fisikoak” erabiliz.

“Sexua” diogunean, emakumeak eta gizonak desberdintzen dituzten ezaugarri biologikoak aipatzen ari gara, desberdinak baikara sexuaren ikuspuntutik. Emakume eta gizonei sineste, jarrera, portaera eta balio desberdinak egokitzen dizkigute gure sexua dela-eta. Batzuei nahiz besteei esleitzen dizkiguten ezaugarri horiek genero izendapenaren barruan sartzen dira eta ez dira berdinak kultura guztietan.

Genero kontzeptuak gizarte bakoitzean sexu bakoitzari esleitzen zaiona adierazten du, alegia: “genero” hitza erabiltzen dugunean, gizarte bakoitzak sexu bakoitzari esleitzen dizkion gaitasunak eta jarrerak aipatzen ari gara. Bestalde, azpimarratzen du emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien jarrera, eginkizun eta rolak kulturalak direla eta ez dutela loturarik bi sexuen arteko desberdintasun biologikoekin.

Gizarte bakoitzak bere genero-arauak eraikitzen ditu, bere sineste edota interesen arabera. Genero jarraibideak jaiotzatik bertatik inposatzen zaizkie gizon eta emakumeei, eta ezagutzen diren gizarte guztietan jarraibide horiek asimetrikoak, desberdinak eta murrizgarriak izan dira. Generoen arteko desberdintasuneko harreman horiek gizartearen oinarrian daude, eta ondorioz, gizabanakoek honetan izango duten leku, eginkizun eta maila haien gaitasun pertsonalekin zerikusirik ez duten elementuek baldintzatuko dute.

Genero kontzeptua 70eko hamarkadan sortu zuten feminista anglosaxoiek, haren bidez nabarmentzeko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak sozialak direla eta ez biologikoak.

Ondoren, 80ko hamarkadan, zientzia sozialetako hainbat diziplinak genero kontzeptua erabiltzen hasi ziren, generoak argi eta zehatz erakusten baitzuen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun biologikoak desberdintasun ekonomiko, sozial eta politikoak eragiten zituela, sexuen arteko bereizketan bereizgarri ziren alderdiak eremu sinboliko, kultural eta historikoan jarritz.

Generoa analisi-kategoria gisa ezartzea giza zientzietan azkeneko hamarkadetan egin den haustura epistemologikoa garrantzitsuena izan da; izan ere, bereizketa sozial bat bezala onartzea ekarri du, zeina ordura arte dimentsio ekonomikoan jasota zegoen, bai klaseen teorian bai eta estratifikazio sozialeko teorian ere.

Antropologiak honela definitu du generoa: “gizarte bakoitzak sexuen arteko desberdintasunen gainean egiten duen interpretazio kultural eta historikoa”. Interpretazio hori sexu-genero sistemaren ondorio da; hau da: sexu-desberdintasunetik abiatuz gizarteek eratzen dituzten jarduera, sinbolo, irudikapen, arau eta balore sozialen ondorio. **Horrenbestez, generoak bizitza sozialaren pertzepzioa nahiz haren antolaketa zehatza eta sinbolikoa egituratzen du.**

Psikologiaren arabera, biologikoki desberdinak diren pertsonak emakume eta gizon bilakatzen dituen prozesua da generoa; horretarako gizarte bakoitzak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat hartzen dituen ezaugarriak beretzat hartuz. **Generoa, beraz, femeninoaren eta maskulinoaren eraketa psikosoziala da.**

2.2.2. GENERO IDENTITATEAREN ERAKETA

Gizarteratzea, genero-soziala eta eragile sozializatzaileak

Gizarteratzea ikasketa prozesua da eta haren bitartez bizi garen gizartearen balio, sinesmen eta alderdi kulturalen multzoa barneratzen dugu. Prozesu horretan gizarteak onartutako jokabideak zein diren -eta zein ez- ikasten goaz, bai eta haiek onartzearen edo haustearen ondorioak zeintzuk diren ere.

Genero-soziala sexu bakoitzarentzat desberdinak diren hainbat arauen multzoa da, gizarteak berak dituen beharren arabera sortutakoak, eta pertsonari jaiotzatik identifikazio-eredu gisa ezartzen zaizkionak. Emakumeek, oro har, ugalketari lotutako rola garatu dute gizartean; gizonak, aldiz, ekoizpen lanekin lotu dira, familiaren mantenuarekin eta eremu publikoarekin.

Eragile sozializatzaileak, berriz, gizarteratzeko funtzioa betetzen duten erakunde, pertsona edo bitartekoak dira, hau da, arau eta irakasbideen transmisioaren bidez heziz doazenak. Berebiziko garrantzia dute pertsonen garapen psikologikoan. Hona eragin handiena duten eragile sozializatzaileak:

- Familia
- Ikastetxea:
- Komunikabideak eta publizitatea:

Gaitasunak, balio-sozialak, estereotipoak eta generoaren arabeko rolak

Gure genero-identitatea osatzen laguntzen digun sozializatzeko-prozesuan lau alderdi edo eraikin soziokultural daude, prozesu horretan eragin nabarmena dutenak. Hauek gaitasunak, gizarte-balioak, estereotipoak eta generoaren arabeko rolak dira.

Gizartean bete beharreko eginkizunak eta egin beharreko ekarpenak.

Rol femeninoari gehienbat etxeko lanak esleitu zaizkio (ugalketa, harremanak emozioen eremuan). Rol maskulinoari, berriz, eremu publikoa esleitu zaio (produktzio lanak): ekarpenak lan eremuan, eremu zientifikoan, ekonomikoan eta politikoan: botere soziala, azken finean. **Emakumeen eta gizonen berezkitzat hartu diren lan eta jarduerak.** Ekonomia sostenguari antolatuta, erabilera eta kontrolarekin zerikusia dutenak gizonei esleitu zaizkie; ugalketarekin, pertsonen zainketa eta sostengu afektiboa eta etxeko lanari lotutakoak, berriz, emakumei esleitu zaizkie.

Sexu bakoitzari esleitutako gaitasun eta portaerak eta kontrajarriak dauden bi unibertso sortzen dituztenak.

Tradizioz hauek hartu dira gizonen ezaugarritzat: entelegua, indibidualismoa, oldarkortasuna, bortizkeria; hainbat gaitasun: agintzeko, arriskurako, lehiakortasunerako; arrazionaltasuna... Emakumeei, berriz, honako ezaugarri hauek esleitu zaizkie: sentiberatasuna, besteak ulertzeko gaitasuna, sakrifizioarako erraztasuna, ama-sena, ezegonkortasuna, mendekotasuna, ahulezia, zuhurtasuna...

Prestigioa eta garrantzia eskema sozialean

Maskulinoa, erreferentziako eredu positiboa izanik, menderatze-egoeran dago. Egoera hori boterearen erabileran eta errealitatea izendatu eta sortzeko erabiltzen dituen

balio eta formetan islatzen da: politikan, ekonomian, erlijioan, familiaren antolaketan... Hau da, maskulinoak balio, izen, aitorpen handiagoa ditu femeninoak baino.

Gaur egun eskema hori aldatzen ari da, eta egoera alda daitekeen frogarria da emakumeen presentzia gero eta nabarmenagoa dela lan merkatuan, unibertsitatean, politikan. Hortaz, honek guztiak pentsarazten digu sistema hau zaharkitua dagoela eta aldaketak justizia-sozialaren garapenaren emaitza direla.

2.2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen eskubide eta baldintzak berdinak izatea lortzeko berdintasun-printzipioa gizarte-aurreratuen balio nagusi gisa finkatzea esan nahi du, emakume eta gizonen egoeren desoreka gainditzeko erronka bere gain hartuz, erantzukizun partekatuan eta ekitatean oinarriturik.

Ikuspuntu horretatik, arautegia eta gomendio zein proposamen politikoak bideratu dira, Europar Batasunetik nahiz nazioarte mailan ere; horrela, gaur egun, ia erakunde publiko guztiak, denak ez esatearren, bat datoz emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldeko argudiaketa-ildo hauekin:

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna emakumeekiko justizia kontua da.** Izan ere, emakumeak munduko biztanleriaren erdia baino gehiago izan arren, giza-eskubideak ukatu zaizkie mendeetan zehar.
- **Aukera-Berdintasuna garatzeak gizarte justuagoak eta demokratikoagoak eraikitzen laguntzea esan nahi du,** eta horretarako, lehen bait lehen hautsi behar dute emakumeek egitura sozial, politiko eta ekonomikoetan ordezkaritza txikia izateak dakarren demokrazia gabeziarekin.
- **Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunak emakumeak eremu sozial, politiko eta ekonomikoetan sartzeko ekarriko du berarekin,** eta gizarte osoaren eraginkortasun ekonomikoa sustatzen lagunduko du, herritarren ezagutza, gaitasun eta trebetasunei etekinik handiena ateratzean.

Baina hori guztia ezerezean geldituko da emakumeen eta gizonen ekintza zuzenak eta norbanakoak behar duen zilegitasuna ematen ez badira; hala, gu guztiok funtsezkoak gara berdintasunean oinarrituta lan egiteak dakarren aldaketa prozesuan, sektore publiko, pribatu edo hirugarren sektoreko langileak edota herritar xumeak garen aldetik, eta orokortasunetik pentsatzeko eta gure ingurune gertuenean jarduteko gaitasuna dugun aldetik. **Hain zuzen ere, norberaren jarrera aktiboak ahalbideratuko du egiazko kultura demokratikoa garatzeko gizarte balioak finkatu ahal izatea, negoziazioaren bitartez.** Halaber, ahalbideratuko du gizonen eta emakumeen erantzukizunak, eginbeharrak eta funtzioak partekatzea jarduketa eremu desberdinetan, bizitza partekatzea azken finean.

2.2.4. GENERO IKUSPUNTUA

Gizonen eta emakumeen arteko elkar eraginean ematen diren harreman eta jokaera motak azaldu nahi ditu, bai eta norberaren elkarbizitza guneetan bakoitzak hartzen dituen funtzio eta rolak ere. Horrez gain, emakumeen eta gizonen gizarte jarreraren inguruko azalpena ematen du.

Begirada analitiko horrek jarduketa instituzional, politiko, profesional eta zibilari zuzenduta dago. Hartara, genero ikuspegiak aukera ematen du emakumeak eta gizonak definitzen dituzten ezaugarriak, antzekotasunak eta desberdintasunak sistema patriarkalaren ikuspuntutik bideratu, aztertu eta ulertzeko. Ikuspuntu horretatik batzuen eta besteen bizitza ahalmenak aztertzen dira, haien bizitzen zentzua, dituzten itxaropenak eta aukerak, bi generoen artean ematen diren gizarte harreman konplexuak, eta azkenik, egunero sortzen zaizkien arazoei eta erakundeen arteko arazoei aurre egiteko moduak.

2.2.5. HEZKIDETZAREN BEHARRA

Hezkidetzak, bere banakotasun eta berezitasunaren arabera, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza bezala defini daiteke, hau da, hezkidetzak, irizpide sexistak jarraituz gizon eta emakumeei egokitu zaizkien rolak, baloreak, portaerak, eta abarrak kontuan hartu gabe hezteak da. Pertsona autonomoak izateko, gure bizitzako proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan egoteko... behar ditugun gaitasunak garatzea da helburua.

Hezkidetzak, norberaren ezberdintasunak onartuz, pertsona guztiak berdin hezteak esan nahi du; jendarte generoaren arabera hierarkizaturik ez dauden, baloreen, portaeren, arauen eta espektatiben sistema batean, hain zuzen. Horrek guztiak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunetik eta ezberdintasunetik, eta bi ereduen -maskulino eta femeninoa- integraziotik abiatu beharreko prozesua suposatzen du.

Hezkidetzak balio berdinetan hezteko ariketa izanik, bai neskek eta bai mutilek sufritzen duten diskriminazio guztiei aurre egin nahi dio. Beste motatako jendarteak sortzeari begira, pertsona oso eta kritiko sortu nahi ditugu.

Horregatik, ezinbestekoa da hezkuntza prozesuan parte hartzen duten eragile guztien inplikazioa. **Hezkidetzarekin bat datorren lan integrala bermatzeko estrategiak eta jarduerak planteatu beharko dira.** Horrek, jarrera, balio eta gaitasunen koexistentzia ekarriko du berarekin, generoaren azterketa batetik abiatuta, haur bakoitzaren garapen pertsonalerantz.

Familia eremuan, kontuan hartu beharko da gurasoen prestakuntzaren garrantzia, hezkidetzan oinarritutako gaitasun eta lan-tresnak beregana ditzaten. Azken helburua da **gurasoak aholkatzea eta orientatzea gizarte estereotipoak gainditzen lagunduko duten elementu erabakigarriak eta aktiboak izan daitezen;** eta, aldi berean, gai izan daitezen emakumeei zein gizonei gizartean emandako aldaketei erantzun bat eman ahal izateko beharrezko gaitasunak garatzen, eta etengabe aldatzen ari den gizarteari aurre egiten, zein sexutakoak diren kontuan hartu gabe.

Zer esan nahi du hezkidetzak aurrera eramatea?

Hezkidetzak prozesu bat da, norberaren gaitasunak eta jarrerak garatzea helburua duena, estereotipo eredu femenino eta maskulinoak, tradizionalak eta zaharkituak alde batera utziz; pertsonen aukera ematen dien baloreak, gaitasunak eta jarrerak askatasunez hautatzeko, maskulinitatearen eta feminitatearen ereduetatik kanpo, eredu horiek nortasunaren garapen osorako muga baitira.

Orain arte gizonenak eta emakumerenak hartuak izan diren gaitasun eta balioak garatzea sustatzen du, edozein sexutako pertsonak onartu eta bereganatu ahal ditzaten. **Nortasunaren garapen osoa du helburu, generoaren oztopoetatik kanpo, sexismo kultural eta ideologikoa eta emakumearen desberdintasun soziala zuzenduz.**

2.2.8. BERDINTASUNAREN INGURUKO LEGEDIA

Azken urteotan, lege eta arau juridiko ugari sortu da nazioarte, Europa, estatu eta toki mailan, eta horien helburu nagusia da emakume eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna lortzea. **Genero politiken inguruko lege eta teoria desberdinen artean bereiz daitezke:**

- Apirilaren 2ko 7/1985eko Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (2003/12/21ean eguneratua)
- Otsailaren 18ko 4/2005 legea, Emakume eta gizonezkoen berdintasunari buruzkoa (2022/08/03an eguneratua)
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, berdintasunari buruzkoa.
- EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Plana (2018-22).
- Istanbulgo Hitzarmena (2014)
- Tokiko Emakume eta Gizonen berdintasunerako Europako Gutuna (2006)

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (03/12/21ean eguneratua). Legearen 28. artikuluan esaten denez, udaletxeek beste herri administrazioako batzuen jardura osagarriak egin ditzakete eta, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumeen ahalduntzeari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzkoak. Testuinguru honetan, argi dago **tokiko administrazioako protagonismoa, eta esku hartzeko tokia uzten da araudian, udaletxei esku hartzeko bidea emanez**, baita herritarrek generoaren inguruan dituzten beharrak eta iguripenak betetzen laguntzeko beharrezko dituzten gizarte zerbitzuak ere. Horrek ez dakar berekin beste eskumen batzuk galtzea.

Emakume eta gizonezkoen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Lege honen eremuan, emakume eta gizonen berdintasunaren arloan administrazio maila bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten ditu argi eta garbi, beti ere Autonomia Estatutuko 10.39. artikuluan, Lurralde Historikoen legearen 6 eta 7 c) 2 artikuluen eta estatutuko arauen (9.2. art.) eta EBkoen (Europako Batasunaren itunaren 3.02. art.) ondoriozko eskumenak oinarri hartuta. Horiek guztiak behartu egiten dituzte herri botereak emakume eta gizonezkoen berdintasunerako baldintzak sustatzera eta horretarako oztopoak desagerraraztea berdintasuna benetako izan dadin. Gainera, berdintasun hori herri botereen politika eta ekintza guztietan sustatu behar dute. 2022ko eguneraketak beste, berritasun gisa planteatzen du bere printzipio orokorren artean espresuki aipa dadila emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea. Izan ere, legearen beraren izena aldatu da «EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA». Horren harira, azpimarra jartzen da prebentzioan, alegia, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, ahalduntze-neurriak indartzea, bereziki, hezkuntzaren arlokoan.

Emakume eta gizonen berdintasunerako VII Planak (2018-22) dakartzan erronkak, batetik, herri-administrazioen barne-antolaketa eta/edo funtzionamendua aldatzeari buruzkoak dira eta, bestetik, gizartearen arlokoak. Beraz, alde batetik Gobernu Onerako ezinbestekoak diren elementuak txertatzen dira berdintasunerako politiketan, esaterako: gardentasuna, gizarte arloko parte-hartzea eta konpromiso politikoa. Eta bestetik, berdintasunaren arloan hartu-hartzekoak esparru hauetan kokatzen dira: Emakumeen ahalduntzea; Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza. Azken ardatz honen sentsibilizazio eta prebentziorako programak hiru puntu nagusi aurreikusten ditu: **indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea** (III.6.1.), emakumeen aurkako indarkeriari buruzko **informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea** (III.6.2.), eta **emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea** (III.6.3.).

Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. 2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaraturiko legearen abiapuntua, alde batetik, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa da: *“Giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da”*. Besteak beste, funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: “Ekintza positiboa”, “Ordezkaritza orekatua” eta “Zeharkakotasuna”. Hauxe azaltzen da 21.1. artikuluan: *“Toki erakundeek berdintasunaren eskubidea ezarriko dute haien eskumenak erabiltzea eta, horretarako, lagundu egingo diete gainerako herri administrazioei”*.

Istanbulgo Hitzarmena (2014) Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruzko Europako lehen tresna loteslea da, eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako nazioarteko itun zabalena da. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa gisa aitortzen du eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dio indarkeria saihesteko, biktimak babesteko eta egileak epaitzeko neurrien bidez.

Tokiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna (2006). Europako udalen eta Erregistroen kontseiluak bultzatuta, emakume eta gizonen berdintasunerako erkidego ekintzaren 5. programaren barruan, *“Europako tokiko eta erregioko gobernuentzat da, eta gutuna sinatzea, emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jendaurreko jarrera agerraraztea eta kartan zehazturiko konpromisoak haien lurraldean aplikatzea eskatzen die”*.

EUDEL (EAEko Udalerrien Elkarte) da proiektuaren bazkideetako bat, eta gero euskal udal gehiagok sinatu dute gutuna. Gutun horrekin bat egiten duten udalek hitzartu egiten dute bi urteren buruan berdintasunerako ekintza-plan bat egitea eta abiaraztea, guztiek parte hartuta eginikoa eta ebaluazio-irizpideei lotuta, baita plan hori abiarazteko nahiko baliabide izatea ere.

Berdintasun alorrean indarrean dauden beste lege batzuk:

- Genero indarkeriaren aurkako legea.
- Mendekotasun legea.
- Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautu duen legea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legea.

- Kontziliazio legea.
- Estatuko Berdintasun Legea.
- Seme-alabak dituzten familien laguntzarako erakunde arteko plana.
- EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII Plana.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren desagerpenerako deklarazioa.

2.3. GENERO INDARKERIA

Orain arte, emakumeek, emakumeak izateagatik, pairatzen dituzten diskriminazioez eta desberdintasun tratuez hitz egin dugu. Bada, genero indarkeria desberdintasun horien muturreko ondorioa da.

Honela definitu dute Nazio Batuek emakumeen aurkako indarkeria: *"bizitza publikoan nahiz pribatuan burututako indarkeriazko egintza, generoan oinarritua, kalte fisiko, sexual edo psikologikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, hertsatzea eta askatasun gabetze arbitrarioa barne".* (1995. urtean Beijingen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentziaren lehenengo txostenetik aterata).

Indarkeria boterea eskuratzeko modu bat da eta horretarako hainbat baliabide erabiltzen dira (indar fisikoa nahiz kontrol psikologikoa, ekonomikoa, egiturazkoa, politikoa, espirituala...) Pertsonen arteko harremanen eremuan, **indarkeriazko jokabidea boterearen eta kontrolaren abusuaren sinonimotzat hartzen da**, boterea beste pertsona bati mina eragiteko erabiltzen den heinean. Horregatik, hain zuzen ere, pertsona batek beste batengan indarkeria erabiltzeari abusu harremana esaten zaio.

Lehenago esan dugun bezala, generoen arabera harreman desorekatuek, kulturalki onartuak, justifikatu nahi izan dituzte pertsona batek bizi ditzakeen egoera zailenak, emakumeen aurkako indarkeria esate baterako.

Emakumeekiko indarkeriak gizonak emakumeen aurka indarkeria erabiltzea dakar, eta generoaren arabera diskriminazio gogorrenetakotzat jotzen da; izan ere, **emakumea hutseratzea du helburu eta kasu askotan, emakumearen hilketa dakar.**

2.3.1. INDARKERIA MATXISTA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA GENERO INDARKERIA

Zer desberdintasun dago emakumeen aurkako indarkeriaren eta genero indarkeriaren artean? **“Genero indarkeria” garatzen ari den termino berria da oraindik.** Jatorrian, nagusiki “emakumeen aurkako (gizonezkoen) indarkeria” terminoa ordezkatzeko erabili zen, “emakume” hitzak sexu emeko norbanakoak nahiz gizartean dauden emakumezkoen generoko rola izendatzen baititu. **Terminoa sortu zutenek nabarmendu nahi zutena zen emakumeen aurkako indarkeria biktimaren generoarekin eta egilerenarekin ere erlazionatuta dagoen fenomeno dela.** Definizio askotan, oraindik, emakumeak indarkeriaren biktimak direla azpimarratzen da: adibidez, ACNUDHeko CEDAWren (Emakumearen aurkako Bereizkeria Modu oro Ezabatze Konbentzioaren) batzordeak dio genero indarkeria *“emakume izateagatik*

emakumeen aurka zuzenduta dagoen indarkeria, edo emakumeei neurritz kanpo eragiten dien indarkeria”.

Dena den, aurrerapenak ere egin dira definizio hori egoera hauekin lotutako indarkeria modu guztietara zabaltzeko: a) generoan oinarritutako aukera eta egoera sozialak; eta b) sozialki onartutako genero rol bati ez egokitzea. Hala, **“genero indarkeria”, geroz eta gehiago, edozein “ideologia patriarkalean” sustraitutako indarkeria ekintza guztiak biltzen dituen terminoa da**, eta, beraz, emakumeen nahiz gizonen aurka emakumeek nahiz gizonek egin dezakete, gizonezkoen (gizon heterosexualen) botere soziala atxikitzea helburu. Definizioaren bilakaera deskribapen honetan ikus daiteke:

Genero indarkeria emakume baten borondatearen kontra eragindako edozein kalte biltzen duen terminoa da, pertsonaren osasunean eta garapen nahiz identitate fisiko edo psikologikoan eragin negatiboa duena, eta gizonen eta emakumeen arteko, gizonen arteko, eta emakumeen arteko bereizketaz baliatzen diren generoen arteko botere desorekatuaren emaitza dena. Emakume eta neskatoetara mugatu ez arren, horiek dira genero indarkeriaren biktima nagusiak kultura guztietan. Indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa eta soziokulturala izan daiteke. Hauek dira erasotzaile mota ohikoenetako batzuk: senideak, komunitateko kideak, eta erakunde kultural, erlijioso, estatal eta lokalen izenean jarduten dutenak edo erakunde horiei jaramonik egin gabe jarduten dutenak.

Indarkeria matxista terminoak ez du berariazko islarik legerian (horretan EAEko Berdintasun Legea aitzindari izan da 2022ko eguneraketarekin). Horrek ez du esan nahi, jakina, halakorik ez dagoenik. Izan ere, kategoria horretan sartzen dira emakumeen hilketak, seme-alabena, edota emakumeen jazarpena. Eta beste kasu batzuk ere sar litezke, desberdintasun-egoeran errotzen direnak, hala nola, emakumeen salerosketa, prostituzioa edo genitalen mutilazioa.

2.3.2. ZER DA INDARKERIA?

Indarkeriaz pentsatzen dugunean, sozialki, kulturalki eta politikoki eraikitako indarkeria nozioek eraginpean gaude, esaterako, indarkeria ona, indarkeria, txarra eta indarkeria ulergarria. Definizio hauek indarkeria planteatzeko hainbat modu iradokitzen dituzte:

-Indarkeria psikologikoa: abusuzko jokabide edo jarrerak dira eta pairatzen dituenak gutxiestea dute helburu. Autoestimua galtzea eta biktimen osasun psikiko eta fisikoan ondorioak dakar. Indarkeria mota honetan abusu emozionala, soziala eta ahozkoa ematen dira (irainak, garrasiak, burlak, salaketak, askatasun-gabetzeak...) Horren barnean beste hauek ere sartuko lirateke: pertsona bati ez ikusiarena egitea (pertsona batekin ez hitz egitea edo egongo ez balitz bezala egitea), eraso fisiko batekin mehatxatzea ("kasu egiten ez badidazu, zaplazteko bat emango dizut"), pertsona bat kontrolatzea edota nahi duena egitea debekatzea (lagunekin ateratzea, ikastea, lan egitea), gertatzen den guztia erengatik errua botatzea ("zure erruagatik iritsi gara berandu"), pertsona bat ezezte eta hitza kentzea ("isildu zaitez, ez daukazu ideiarik

eta"). Etengabeko tratu txar psikologikoen ere, tratu txar fisikoak bezalaxe, beharrendu sentimenduak eragiten dituzte, pertsonen autoestimua hondatzeraino.

-Indarkeria fisikoa: erasotutako pertsonari kalte fisikoak dakartzan edo ekar diezazkion edozein egintza (kolpeak, zauriak, erredurak, jipoiak, ostikoak, bultzadak...). Edota beste hauek ere: kolpeak, ukabilkadak, ostikoak, atximurkadak, iletik tiratzea, erretzea, gatibu uztea, lotzea, besoetatik nahiz eskuetatik tira egitea mugimendua galarazi edo bortxatzeko, ebakitzea, zizt egitea, janezinak diren gauzak jatera behartzea, janaririk ez ematea, etxetik bortizki botatzea... edota heriotza eragin dezaketenak. Indarkeria fisikoak pertsonen osasuna eta bizitza arriskuan jartzen ditu. Gainera, muturreko kasuetan, beldur handia eta beharrendu sentimenduak eragiten ditu, haien autoestimua hondatzen joaten direnak.

-Indarkeria sexuala: emakumearen borondatearen aurka doan edozein sexu-harremana da indarkeria sexuala. Bortxaketa, jazarpena eta abusua sexu-erasoak dira. Neska bati gona jasotzea edo ipurdia ukitzea, esate baterako. Edo hauek: emakume bati harreman sexualak izatera behartzea, harreman horiei ezezkoa emateagatik zigortzea, emakumearen gorputzean objektuak sartzea, emakumeari berak nahi ez dituen sexu praktikak izatera behartzea.

-Ingurune indarkeria: pertsonaren ingurunea hondatzea, bere objektuak kolpatu eta haustea, objektuak estaldu edo haustea, bere posta ez errespetatzea, mugikorraren mezuak begiratzea baimenik gabe, bere gauzak kalera botatzea, bere atsedena galaraztea, bere animaliei edo maskotei tratu txarrak ematea...

-Indarkeria ekonomikoa: honako jarrera hauek ditu ezaugarri: dirua murriztea edo ez ematea, irabaziak estaltzea, familiaren betebeharrak sarreraren proportzioan ez betetzea, batek bakarrik erabakitzea gastu handiak egin behar direnean, gastuak justifikatzera behartzea, irabaziko ondasunak estaltzea...

Indarkeria mota horiek guztiek oso ondorio larriak dituzte pairatzen dituzten pertsonengan, esate baterako: kulpasentimendua, antsietatea, beldurra, autoestimu txikia, depresioa...

Botere publikoek indarkeria hori eteteko neurri asko jarri dituzte abian, nazioartekoak, Europakoak, nazionalak, Foru Komunitatekoak eta tokikoak.

Izan duen eraginagatik azpimarratzekoa da, besteak beste, **abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriak buruzkoa**. Lege honen xedea da *indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.*

Lege honen bidez babes-neurri osoak ezarri dira, eta neurri horien helburua da halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babesa ematea. Lege horrekin batera, auzitegi espezifikoak sortu ziren, emakumeen aurkako indarkeriarako auzitegi deritzanak.

2.4. TRATU ONAK

2.4.1. HARREMAN OSASUNTUAK ERAIKITZEKO OSAGAI NAGUSIAK

Programa hau zuzenduta dagoen adin tartean harremanek berebiziko garrantzia hartzen dute. Orain arte, familia izan da erreferente eta bertan asetzen ziren behar emozionalak, baina adina aurrera doan heinean, harreman sozialek pisua hartu eta hauen bidez pertsonak bere beharrak asetzen eta bere autoirudia eta autoestimua garatzen doaz. **Adin honetan bereziki, gurasoengandik aldentzen hasten direnez, lagun taldean bilatzen dute familian lehen lortzen zutena, beraz, harremanak nola eraikiko dituzten hemendik aurrera oso garrantzitsua izango da.**

Era berean, gaztea hasi berria dago harremanak eraikitzen, eta askotan oso galduta sentitzen da, horretan berria delako. **Harremanetan trebatzeko beharra dugu, hau da, ez da berezkoa dugun zerbait, “entrenamendua” behar beharrezkoa da.** Entrenamendu hori jarraipen bat izan behar du, eta bide horretan, batzuetan hanka sartuz, besteaz eta gure buruaz asko ikasten dugu.

Harremanetan hasi berria dagoen gazte horri, harreman osasuntsuak eraikitzen laguntzea da asmoa, eta **horientzat beharrezkoak diren hainbat balore eta tresnak eskaini nahi zaizkio**, beti ere kontutan edukita norberak bere bidea egin beharko duela, eta hanka sartzeetatik eta une batean harreman ez osasuntsuetan erortzea, bizitzarako eta harremanetarako asko erakutsiko digutela kontutan izanik.

Bestalde, pertsona izaki indibidualtzat eta, era berean, izaki soziokulturaltzat jotzen dira. **Alde batetik, pertsonak beren ezaugarri indibidual eta bakanetan aztertzen dira**, eta tradizio kulturalaren, gizarte patriarkalaren eta genero identifikazioaren (emea eta arra) ereduak, balioak eta egitekoak nola barneratu dituzten ere aztertzen da. **Bestetik, alderdi soziokulturalak, talde egitura jakinak**, pertsonen arteko loturak, mundua eta harremanak ulertzeko erak eta nork bere burua pertsona sexudun (gizon edo emakume) gisa bizitzeko moduak nola sortzen eta bultzatzen dituen aztertzen da.

Genero dikotomia horrek genero jarrera, sintoma eta arazo espezifikoak eragiten eta sustatzen ditu. Ardatz horietako bakoitza (tradizio kulturala, gizartea, azpikultura femeninoa eta maskulinoa, pertsona) ikerketa, metodologia eta interbentzio lerro bat da, edukien analisia nahiz horien kontzeptu integratzailea ahalbidetzen duena, norbanakoa espazio pertsonala deritzogunaren hiru dimentsiotan ulertuta: barruko espazioa, harreman espazioa eta espazio soziala.

- **Barruko espazioak:** norbanakoak bere gorputzaz duen esperientziarekin du zerikusia, gorputza prozesu mental, emozional, fisikoa eta espiritualen espazio integratzaile gisa ulertuta, eta, noski, gorputz sexuduna. (*Zer sentitzen dut? Zer pentsatzen dut?*)
- **Harreman espazioak:** besteeiko erlazioak eta loturak nola sortzen diren du hizpide. (*Nola erlazionatzen naiz?*)
- **Espazio sozialak:** komunitatearekin du zerikusia. Barneratuta dagoen eredua da, estatus soziala, gizonaz edo emakumeaz espero denari buruzko ustea, egiteko profesionala eta abar. (*Nire ustez, zer toki dut gizartean?*)

Hiru espazio sinboliko horiek subjektuaren esperientzia pertsonalean integratuta dauden dimentsioak dira, eta subjektuaren Espazio Pertsonala osatzen dute. Ikuspegi horren arabera, pertsonak hainbat ikuspuntutatik ulertu behar diren izaki sexudunak dira: ikuspuntu fisikoa, emozionala, mentala, espirituala eta soziala. **Horregatik,**

sexualitateari luzetara begiratzen zaio subjektuaren bizitzan zehar, eta zeharka begiratzen zaio Espazio Pertsonalaren dimentsio hirukoitz horretako alde anitzetan.

Planteamendu hau da abiapuntua: botere erlazioek, borrokak, bizimodu eta bizikidetzaren eredu gisa, premiarik gabeko oinazea, etengabeko estres egoera, egonezina eta, epe luzera, beste hainbat sintoma eragiten ditu.

Gauza bat da gizakiaren parte diren norberaren emozioak bizitzen jakitea, esaterako, oldarkortasuna eta amorrua, gero emozio horiek aldatu eta bideratu ahal izateko; eta beste gauza bat da indarkeria eta mendekotasuna giza harremanen eredu gisa sustatzea. Lehenak pertsonalki hazten, tolerante izaten laguntzen du; bigarrenak etengabeko borroka egoera sortzen du, barruan nahiz kanpoan.

Egitasmo honek pertsonen bakezko, bizikidetzazko harremanak izatea biltzen du, bai beren buruarekin bai besteekin. Horretarako barruko prozesuen, harreman prozesuen eta eragin soziokulturalaren autoezagutza jorratzen da.

Horregatik, **sentipen eta emozio guztiak, ezagutu eta gureak bezala onartzea, lehendabiziko pausu garrantzitsua da harreman osasuntsuen oinarria jartzeko.** Hurrengo pausua, emozioen kudeaketa osasuntsua da, norberak besteari bere sentimendua edo emozioa adierazteko gaitasunean oinarritzen da.

2.4.2. ADIMEN EMOZIONALAREN BEHARRA

** Adimen emozionala, Foru Aldundiak sortutako materialetik aterata.*

Adimen emozionalarekin erlazionaturiko esku-hartzea behar-beharrezkoa duten hainbat egoera dagu, bai familia, bai hezkuntza eta bai gizartearen alorrean. Lehenik eta behin, nerabeen konpetentzia emozional maila baxuak “analfabetismo emozionala” (Goleman, 1996) deritzana jarri du agerian. Horrek moldagabeziarekin erlazionaturiko jarduerak eragin ditu (Bisquerra, 2003), besteak beste: substantzia kaltegarrien kontsumoa (droga-kontsumoa), kultur aniztasuna, elikadura-nahasteak (anorexia, bulimia); emakumeen kontrako indarkeria, nahi gabeko haurduntza, suizidio eta indarkeria mailaren igoera, bai eskolan, bai eskolatik kanpo: eskolako *bullying* delakotik hasita, eskuko telefonoarekin grabatu eta Interneten esekitzen diren isekatarak arte (*cyber-bullying* delakoa).

Bestalde, emozioek erabakiak hartzeko orduan duten eraginaren inguruan (A. Damasio) egindako azken ikerketek eta, ondorioz, CI delakoak (adimen akademikoa) gizabanakoaren lorpen profesionala lortzeko berez eragin urria duela frogatzeak (Fernández Berrocal eta Extremera, 2002) agerian utzi dute garapen emozionala ezinbesteko osagaia dela garapen kognitiboan.

Horrekin batera, eta aipatu egoerak kontuan hartuz, adimen emozionalaren garapena, eta beraz, konpetentzia emozionalen garapena (Bisquerra, 2000 eta Goleman, 1995) ikasgelan izan daitezkeen arrisku-faktoreen prebentzioan zentratzen da (Ibarrola, 2004) ikasleen emaitzak hobetu eta motibazio falta eta erasoak ekiditeko (Casel, 2003); horrez gain, ikasleen arteko harremanak eta ikasleen ongizate subjektiboa hobetzea ere du helburu (Extremera eta Fernández Berrocal, 2004). UNESCOrentzat egindako

Hezkuntzak altxorra du bere baitan (*La educación encierra un tesoro*) txostenak (J. Delors, 1996) XXI. mendeko hezkuntzaren oinarriak ezartzen ditu: ezagutzen ikasi, egiten ikasi eta elkarbizitzen ikasi. Hezkuntza emozionalak azken bi oinarriak lantzen ditu.

2.4.3. MAITASUN HARREMANAK

Askotan indarkeria matxista, eta tratu txarrak maitasun sintoma gisa azaltzen zaizkigu. Hori dela eta, garrantzitsua da gazteekin eta gizartean orokorrean, maitasunaren inguruan dugun eredua aztertzea eta kritikatzeko gure maitasun harremanak modu osasuntsuan bizi nahi baditugu.

Maitasun eredu bakarra ez dago mundu osorako, kultura bakoitzak berea garatu du eta gurea **maitasun erromantikoa da**. Eredu hori telebistan, ipuinetan, lagun artean, institutuan... jaso dugu. Eredu hori gailentzeko eta pertsonen arteko maitasun harreman osasuntsuak eraikitzeko proposamena:

- Pertsona ezberdina, maitatzeko modu ezberdina. Norberak bere eredua behar du, eta behar bada, bere bizitzan zehar aldatzen joango dena. Bakoitzak bere maitatzeko era eraikiz eta bestearekin adostuz, ongi sentituko da eta harreman osasuntsuak garatuko ditu.
- Bikoteko elkarren arteko errespetua.
- Askatasuna: gure bururako nahi edo behar dugun askatasuna besteari eskaintzeko gai izan behar gara. Pertsona askeak nahi ditugu, une bakoitzean nahi duena hauta dezan.
- Independentzia: bakoitza ezberdinak garenez, gure gustu, behar eta gogoen arabera, bikotearekin edo bera gabe aurrera eramatea da bidea, elkarrekin egotea ez du esan nahi dena pertsona berarekin egin edo lortu behar denik. Gure beste espazioak zaintzea garrantzitsua da, pertsona bezala ditugun behar emozionalak pertsona bakar batek ezin baititu bete.
- Autonomia.
- Erantzunkidetasuna: eguneroko eginbeharrak konpartitzea, denek berdintasun egoera batean egoteko.
- Enpatia: bestearen azalean jartzeko gaitasuna garatzea suposatzen du. Modu honetan bere iritzia, desioak, eta ekintzak ulertzeko gai izango gara.
- Berdintasuna: lehen aipatu diren eginbeharretan eta bikotean erabakiak hartuz.
- Komunikazio asertziokoa: adierazpen mota hau, kontzientea, argia, zuzena, orekatua da eta bere helburu bakarra gure ideak eta sentipenak, edo gure eskubideak defendatzea da, inor iraintzeko edo kaltetzeko asmoz.

2.4.4. SEXUALITATEA

Hezkuntza sexualaren oinarri nagusiak eta beharra

Lehenik eta behin, gure gizartean hezkuntza afektibo-sexuala burutzeko behar handia dagoela argi dago. Hona hemen behar honen arrazoi nagusiak:

- Pertsona bakoitza munduan emakume edo gizon bezala jarrera batzuk azalduko **biologikoak kultur mailako erreakzio bat eragiten du, estereotipo sexualak**

ezartzen edo mugatzen dituen. Eraitza bezala, norberak bere sexu-identitateaz oharzea lortzen da.

- Hezkuntza sexualaren bitartez, pertsona bakoitzari, bere gorputz sexuduna behar bezala integratzen laguntzeko, baita **emakumea edo gizona izateko bakoitzak duen modua garatzeko** ere elementuak eskaini behar zaizkio.
- Sexu desiraren asetzea burutzeko modua, norberaren izaeraren eta munduan emakume edo gizon bezala azaltzen den jarreraren zatia da. Hezkuntza sexualaren bitartez, **pertsonei sexu desira ezagutzen lagundu** behar zaie, norbere adierazpenak eta besteen adierazpenak bereizten lagunduz, eta adierazpen horietatik ondorioztatzen diren jarreraren erantzukizuna beregain hartzea lortu beharra dago.
- Emakume edo gizona izateko modua afektuekin erlazionatuta dago. Lotura afektiboak, neurri handi batean **pertsonei artean erlazioak izateko estilo desberdinak** baldintzatzen ditu. Era honetan, maitatzeko eta maitatua izateko beharra eta sexu asetzea lortzeko beharra, intimitatearen espazioan biltzen dira. Intimitatea autoestimua osagarria da, baita emozio mailako segurtasunaren eta oinarritzko konfiantzaren ere. Zalantzarik gabe, eskolatzeak iraute duen bitartean, hezkuntza sexualak zentzu honetan oso lagungarria izan beharko luke.

Hezkuntza sexual ezberdinak: gure proposamena

Talde honek proposatzen duen **hezkuntza sexual mota Felix Lópezen eredu biografikoan oinarritzen da**, hori baita, programan agertzen diren gai guztiak biltzen duen eredu. Eredu hori askatasun pertsonalean oinarrituta dago, baina gizartearen eta horren parte den eskolaren esku-hartzea baztertu gabe, eta hainbat balioen alde egiten du: **onespenaren etika, sexuen arteko berdintasuna, pertsonarteko leialtasuna, plazer partekatua, erantzukizun partekatua, autonomia emozionala eta joera sexualen arteko berdintasuna.**

Sexualitatea eta afektibitatearen osaketan **bi osagai nagusi daude: Identitatea eta autoestimua.** Autoestimua identitatearen osagai bat dela kontutan izanda, hau sakonki aztertuko dugu ondorengo lerroetan. Identitatea norberak bere buruaz duen kontzeptua izango litzateke. Identitatea gure bizitzan osoan zehar osatzen joaten da, eta **hainbat faktoreek eragiten dute: gizartean dauden ereduak, harremanak lagunekin, gurasoekin, eskolan...** Era berean, bi dira identitatearen osagai nagusiak:

- **Autokontzeptua:** pertsonari buruzko egonkorra den ezagutza. “Norberaren ustetan norbera dena”.
- **Autoestimua:** norberak bere buruari buruz dauzkan jarrerak, balorazioa, eta irudikapenak. “Izanaren baieztapena”. Autoestimua gizakiak bizitza guztian duen ezaugarria da. Horrela defini genezake: gure buruaz helburutzat hartu duguna lortzeko norberak duen ahalmenari buruz pentsatzen duguna da. Haurtzarotik familian, eskolan eta lagunartean sortzen diren harremanen menpe dago.

Gure eginbeharra ikasleen autoestimua indartzea da, haien bertuteak nabarmenduz eta gehiago gara ditzaten sustatuz

2.5. LAN FILOSOFIA

Talde honek proposatzen duen **hezkuntza sexual mota Felix Lópezen eredu biografikoan oinarritzen da**, hori baita, programan agertzen diren gai guztiak biltzen duen eredua. Eredu hori askatasun pertsonalean oinarrituta dago, baina gizartearen eta horren parte den eskolaren esku-hartzea baztertu gabe, eta hainbat balioen alde egiten du: **onespenaren etika, sexuen arteko berdintasuna, pertsonarteko leialtasuna, plazer partekatua, erantzukizun partekatua, autonomia emozionala eta joera sexualen arteko berdintasuna.**

Maria Jose Urruzolari jarraiki, gure erronka da ikasle guztiek, neskek eta mutilek, giza garapenerako oinarritzko gaitasunak lortu ditzaten: **autonomia pertsonala, komunikazio ahalmena, adimena, sormena, jarduera eta eraginkortasuna.** Zehazki, neskek autonomia pertsonal eta emozionala lortzea eta mutilek zaintzaren etika, adierazpen emozionala eta bizikidetzarako enpatia garatzea bilatzen da.

Sexualitatea eta afektibitatearen osaketan **hiru osagai nagusi daude:**

Identitatea eta autoestimua: Autoestimua identitatearen osagai bat dela kontutan izanda, hau sakonki aztertuko dugu ondorengo lerroetan. Identitatea norberak bere buruaz duen kontzeptua izango litzateke. Identitatea gure bizitzan osoan zehar osatzen joaten da, eta **hainbat faktoreek eragiten dute: gizartean dauden ereduak, harremanak lagunekin, gurasoekin, eskolan...** Era berean, bi dira identitatearen osagai nagusiak:

- Autokontzeptua: pertsonari buruzko egonkorra den ezagutza. “Norberaren ustetan norbera dena”.
- Autoestimua: norberak bere buruari buruz dauzkan jarrerak, balorazioa, eta irudikapenak. “Izanaren baieztapena”. Autoestimua gizakiak bizitza guztian duen ezaugarria da. Horrela defini genezake: gure buruaz helburutzat hartu duguna lortzeko norberak duen ahalmenari buruz pentsatzen duguna da. Haurtzarotik familian, eskolan eta lagunartean sortzen diren harremanen menpe dago.

Gure eginbeharra ikasleen autoestimua indartzea da, haien bertuteak nabarmenduz eta gehiago gara ditzaten sustatuz

Gure irudia **ostadarra** islatzen duen **aterkia** da. Horrela nahi baitugu hezkidetzaren landu, **modu zeharkako eta integratzaile batean.** Horregatik egitasmo honetan lan egingo duten profesionalak, berdintasun arloan espezializatuta izateaz haratago, honako espezialitateetan dira aditu:

- Psikologian lizentziatuak.
- Soziologian lizentziatuak.
- Sexologian adituak.
- Komunikazio, marketin eta ikus entzunezkoetan adituak.
- Integrazio Sozialean adituak.

Bizitzako arlo ezberdinetatik **hezkidetzaren gaia landu** nahi dugu, gure egitasmoa ahalik eta aberatsen izateko eta hezkidetzaren **modu integralean** landu ahal izateko. Horretan, disziplina bakoitzak zentzu bat ematen dio egitasmoko lan filosofiari eta horiek guztiak txertatzen ditugu gure egitasmoan.

Bestalde, koordinazioari erabateko garrantzia ematen jarraituko dugulako, **hezkuntza alorreko koordinatzaile bat** izango dugu, zeinak aurretik aipatutako lan filosofia integrala txertatuko duen, eta proiektuaren eragileekin burutu beharreko koordinazioaz arduratuko den. Koordinazioa emailaz edo *in situ* antolatutako bileren bitartez egingo da; saioak kokatzeko eta hezkidetza egitasmoaren helburuak lortzeko ezinbestekoak baitira.

Bestalde, azpimarratu nahi ditugu egitasmoaren helburu nagusiak:

- **Bere izate, bizipen eta adierazpenekin gustura dauden emakume eta gizonak lortzea.** Horretarako, emakumeen ahalduntzeari garrantzi handia emango zaio eta maskulinitate eredu berriak lantzeari ere.
- **Azpeitiko Herrian hezkidetza eta tratu onei buruzko gogoeta sustatzea.** Aurretiazko ideiak zalantzan jarritz eta harreman eredu osasuntsuak sustatuz.
- **Neska-mutil, zein gizon-emakumeek bere burua ezagutuz eta onartuz, beraien pertsonalitate erotikoa zoriontsu egingo dituen moduak adierazten ikastea.**

Ikastaro guztien oinarrian banakoa dago. Norberaren izate sexutuaren bizipen positiboa bultzatu nahi dugu, ezagutza batetatik abiatuta bakoitzaren onarpen eta adierazpen baikor bat lortuz. Horretarako, **jarrerak lantzen ditugu**, norberarekiko eta besteekiko ulermen jarrera bultzatzeko saiakera eginaz. **Pertsonarteko aniztasuna ulertzeari garrantzi berezia ematen diogu**, ezberdintasuna aberastasun bezala ulertuz eta onartuz. Ikastaroetan lantzen diren **edukiak argigarriak eta zehatzak izaten dira, neska eta mutilen arteko aukera berdintasunen ideietan oinarritzen direlarik.**

3. HELBURUAK

3.1. HELBURU NAGUSIA

Honakoa da egitasmoaren helburu nagusia:

Azpeitiko ikastetxeetan eta haur eskoletan hezkidetza garatzeko programa diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, epe ertainera hezkidetzaren balioetan eta printzipioetan oinarritutako hezkuntza komunitatea lortzeko, Azpeitiko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduz.

3.2. HELBURU ZEHATZAK ETA NON TXERTATZEN DIRA GURE PROIEKTUAN

HELBURU ZEHATZAK	NON TXERTATZEN DIRA GURE PROIEKTUAN
Aholkuak, prestakuntza eta laguntza ematea Azpeitiko ikastetxeetan Hezkidetzaren praktika txertatzeko prozesuetan.	Trebakuntza saioak hezkuntza formal eta ez formalean; eta aholkularitza pedagogikoa.
Gogoeta egitea eta jarrera kritiko bat sortzea jendarte honetan sexuaren arabera emandako eginkizun eta genero	LH eta DBHko ikasleei zuzendutako trebakuntza.

estereotipoen gainean, eta aukeratzeko askatasuna sustatzea ikasleen erabaki akademikoki, profesional eta pertsonaletan.	
Konfiantzazko gune bat sortzea ikasgelatik kanpo, neska-mutilen askatasun handiagoz hitz egin eta jarrera kritikoagoak har dezaten.	Gazteekin hezkidetza mahaia eta ikasle guztiei eskaintzen zaien aholkularitza.
Zainketaren balio soziala agerian jartzea eta berekin daramatzan zereginen banaketa zuzen eta arduratsua sustatzea, pertsonen arteko dependentziaz jabetuz.	LH eta DBH 2.ko ikasleei zuzendutako formazioa.
Gogoeta egitea gaur egungo edertasun-kanonen gainean eta indartzea gorputzaren irudi- eta edertasun-moduen bilaketa bat genero- agindu sozialetatik aske.	DBH 2. eta DBH 4.ko ikasleei zuzendutako formazioa.
Agerian uztea berdintasunaren aldeko borrokan, indarkeria matxistan eta bazterketa sexisten aurka feminismoak izandako lorpena	DBH eta Batxilergo ikasleei zuzendutako formazioa.

Hemen dira guk gehitzen ditugunak:

Norbere Buruaren Zainketa eta Autoestimua. Harreman Solidarioak eta Erakitzailak

- Gorputzarekiko errespetuan oinarrituta, norbere buruaren zainketarako ereduak sustatzea.
- Nork bere gorputza onartu eta errespetatzeko jarrerak lantzea:
 - Gorputzak ematen dizkien aukeren ezagutza bultzatzea (gozamina, komunikazioa...).
 - Gorputzaren balioaz ohartaraztea.
 - Haien buruarekin eta gorputzarekin lasai egoteko aukera eskaintzea.
 - Gorputza plazer iturri moduan ikustea.
 - Bizipenen bidez umeek haien gorputza osasuntsu egoteko behar dituzten zainketak ezagutzea eta martxan jartzea.
- Autoestimua sustatzea, identitate pertsonalarekiko errespetutik abiatuta
 - Norbere emozioak hobeto ezagutzea.
 - Norbere emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea.
 - Emozio negatiboen ondorio kaltegarriak ekiditea.
 - Emozio positiboak garatzeko trebetasuna garatzea.
 - Bizitzeko jarrera positiboa izatea.
 - Ongizate pertsonal eta sozialerako bizi-trebetasunak garatzea
- Aniztasunarekiko eta desberdinen aurrean errespetua bultzatzea

- Neska mutilen artean tratu onean oinarritutako harremanak bultzatzea
- Harreman solidarioak eta eraikitzaileak sortzea
 - Pertsonen arteko komunikazio argia eta afektiboa bultzatzea (entzumena, ulermena...).
 - Komunikazioaren garrantziaz ohartaraztea.
 - Harreman osasuntsuak eta ez osasuntsuen arteko lanketa egitea.
 - Harreman ez osasuntsuetan ematen diren jokaerak aztertzea.
 - Gatazka bizitzea ezer txarra ez dela adierazi, gure heldutasun prozesuan beharrezkoak diren egoerak eta bizipenak direla ohartaraziz.
 - Gatazka era osasuntsuan bizitzeko eta konpontzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea.

Berdintasunezko Harremanak

- Gizartean rolak banatzerakoan dauden diferentziei buruz hausnartzea
- Emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasunari buruz hausnartzea.
- Errespetu eta autonomia pertsonalean oinarrituta, berdintasunezko harremanak sustatzea.
- Zainketa-lanetan neska eta mutilen partaidetza aktiboa sustatzea.

Sexuen Arteko Erantzunkidetasuna eta Bateragarritasuna

- Sexuen rolak eta estereotipoak modu kritikoan lantzea.
- Denbora librean erabiltzeko sexuen arteko diferentziaz hausnartzea.
- Sexuen arteko erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna sustatzea.
- Haien familietan, eta haien lanarekin lagunduta, etxeko lanen banaketa demokratikoagoa sortzeko kontzientzia hartzea.

Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu aniztasuna

- Hezkuntza afektibo-sexualaren bitartez, osasunaren hezkuntza sustatu.
- Sexualitatearen ikuspegi baikorra zabaltzea.
- Geure sexualitatea eta besteen ulertzeko eta onartzeko jarrerak garatu, sexualitatea bizitzaren oinarritzko prozesua dela ikusaraziz.
- Arriskuzko jokabideen prebentzioa landu, nahi gabeko haurdunaldirik edo sexu-transmisioko gaixotasunik ez izateko.
- Nork bere buruaren eta gorputzaren ongizatea eta autoestimua bultzatu.
- Informazio zuzena, objektiboa eta osoa eman.
- Pertsonen arteko komunikazioa eta elkarrizketa sustatu.
- Sentimenduak adierazteko eta beste pertsonen ulertzeko trebetasun sozialak garatu, gerora erlazio afektibo-sexual onak bizi ahal izateko.
- Trebezia sozialak landu besteei entzuteko, desioak eta sentimenduak adierazteko, erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko
- Sexuari buruzko estereotipoak eta aurreiritziak aztertzea eta ekiditea.
- Edertasun-ereduak aztertzea.
- Sexu-jarduera arriskutsuak ezagutzea eta ekiditea.
- Norberaren sexu-aukera errespetatzea eta onartzea. Aukera eskainiko zaie eta haien abantailak eta desabantailak aurkeztuz.

Harreman onak eta genero indarkeriaren prebentzioa.

- Gazteen arteko harreman txarrak ekiditea eta tratu onak sustatzea.
- Norbere burua errespetatzen eta maitatzen ikastea.
- Besteekiko errespetua eta tratu onak sustatzea.
- Sexu aukera ezberdinak errespetatzea eta onartzea.
- Sexuari buruzko estereotipoak eta aurreiritziak aztertzea eta ekiditea.
- Maitasun erromantikoaz hausnartzea eta topikoak desagerraraztea.
- Edertasun-ereduei buruzko hausnarketa eta eztabaida sortaraztea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzientzia hartzea.

Irakaslegoaren helburu zehatzak

- Beren ikasleen sexualitatea berezko gaitasuna eta baikorra den heinean onartzea, errespetatzea eta bultzatzea.
- Hezkidetza lantzea esparru ezberdinetan: gelako materialean, komunikazioan, ..
- Gaur egungo nerabezaroko eta pubertaroko errealitatea aztertzea baita egun eskoletan eta gizartean ematen den hezkidetza eta hezkuntza sexualarena ere.
- Arlo hauetan irakasleek eragile gisa duten garrantziaz jabetaraztea. Hezitzaileak berezko eragilea den heinean bere ikasleen hezkuntza afektibo-sexuala, eta hezkidetza sustatzen eta hobetzen lagun dezakeela ohartarazi.
- Irakasleek beharrezkoak dituzten formakuntza eta baliabideak lantzea hauek gela barruan lana egin dezaten.
- Gela barruan suertatzen zaizkien egoerak, zalantzak e.a. Kasuak gainbegiratzea.
- Haien ikasleekin, tratu onak sustatzeko laguntza ematea, horretarako, haiekin beste modu batez komunikatzeko tresnak eskainiz.
- Ikasleentzat eredu direla jabetzea, horregatik, haien jarrerak eta gazteekin sortzen duten harremanek zainketa berezia behar duela ohartaraztea.
- Arrisku praktikaz, tratu txarrez, indarkeriaz eta gelan sortu daitezkeen jarrera erasotzaileaz jabetzea hauek prebentzio eragileak izan daitezen.
- Irakasleek beharrezkoa duten materiala, eta baliabide pedagogiko eta metodologikoak ematea.

Gurasoen helburu zehatzak

- Beren seme-alaben sexualitatea berezko gaitasuna eta positiboa den heinean onartzea, errespetatzea eta bultzatzea.
- Beren seme-alaben afektibitatea eta sexualitatearen garapenaren unea ezagutzea eta lantzea (pubertaroko eta nerabezaroko ezaugarri sozialak, psikologikoak eta sexualak).
- Sexualitatearen hezkuntzan eta hezkidetzan gurasoek duten rola eta honen eragina aztertzea.
- Sexualitatea eta afektibitatearen hezkuntzak eta hezkidetzak duen garrantziaz jabetaraztea.
- Seme-alabekin komunikazioa lantzeko baliabideak jorratzea: enpatia, entzuketa aktiboa....
- Haien seme-alabekin, tratu onak sustatzeko laguntza ematea, horretarako, haiekin beste modu batez komunikatzeko tresnak eskainiz.

- Seme-alabentzat eredu direla jabetzea, horregatik, haien jarrerak eta gazteekin sortzen duten harremanek zainketa berezia behar duela ohartaraztea.
- Arrisku praktikaz, tratu txarrez, indarkeriaz eta etxean hitz egin edo sortu daitezkeen jarrera erasotzaileaz jabetzea hauek prebentzio eragileak izan daitezzen.
- Neska-mutilen arteko harremanetan hezkidetzaren protagonistak direla jabearaztea eta beraiekin burutzen den esku-hartzean hau garatzea.
- Beren seme-alabekin egiten den lanaren berri izatea.
- Bere seme-alaben autoestimuan eragina izan ditzaketen faktoreak ezagutzea, eta hauei aurre egiteko gizarte abileziak lantzea.

4. PROIEKTUAREN ESKEMA

	Udaleko berdintasun politikei indarra emateko eta egitasmoak planteatzen dituen helburuak lortzeko Udaleko hainbat alorrekin elkarlana egiten jarraitzea proposatzen da. Guk landu nahi dugun egitasmoa ostadarraren aterki bat izan dadila, udaleko alor guztiak argitzen dituen; horretarako behar diren une guztietan koordinazio bilerak egingo dira.
---	--

Hezkidetzarako egitasmo integrala fase ezberdinetan garatuko da. Hau da, urtetik urtera egindakoa aztertu eta programa hedatzen joango da.

Egitasmoak bi lan-ildo nagusi izango ditu: trebakuntza eta aholkularitza

4.1. TREBAKUNTZA

Hezkidetzan oinarritutako ikastaro eta tailerrak esparru ezberdinetan garatuko dira:

4.1.1. Hezkuntza esparru formalean

Ikastetxeetan, herriko ikastetxe guztietan tailerrak antolatuko dira ikasle, guraso zein irakasleekin.

- Irakasleei dagokienez, batetik, **Haur Hezkuntzako** ziklotik **DBHko** ziklora bitarteko irakasleei arreta eta prestakuntza eskaintzea.
- **Berrikuntza moduan ikastaro trinkoagoak eskaintzea proposatzen dugu eskolak bakoitzak aukeratutako zikloan**, eskolen beharretara ahalik eta gehien gerturatuz. Eskola bakoitzeko hezkidetzaren plana indartzeko asmoz.
- Trebakuntza saioetan garrantzia emango zaio **tratu onen eta hezkidetzaren gaiari**, bai irakasle eta gurasoei.
- **Gurasoei dagokienez**, ikasleekin egiten dugun lanean sakontzeko, eta familian hezkidetzaren jorratzearen beharra lantzeko asmoz, eskola bakoitzean saioak burutuko dira. **Berrikuntza moduan ikasturte hasieran ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteko zuzendaritzarekin elkartuko gara hezkidetzaren egitasmoa aurkezteko eta elkarlana sustatzeko asmoz.**
- Berdintasuneko VII. Planak proposatzen dituen erronkak jarraituz, ikastetxeetan **DBH2ko neskei autodefentsa feministako saioak ematen proposatzen dugu; aldi berean, mutilei maskulinitate-saioak eskainiko zaizkie.**

4.1.3. Trebakuntzaren edukiak

Ziklo bakoitzeko jardueraren zehaztapena

TREBAKUNTZA PROGRAMAK IKASLEENTZAKO TREBAKUNTZA GAIK ETA OINARRIZKO EDUKIAK MAILAKA

Lehen Hezkuntza. 4. Maila

“Norberaren burua eta autoestima. harreman solidarioak eta eraikitzaileak”

Norberaren burua eta autoestimua sustatzea behar beharrezkoa da besteekin harreman eraikitzaile, solidario eta osasuntsuak lortu nahi baditugu.

Pertsonen modu honetan funtzionatzen dugu:

Emozioa	Pentsamendua	Hitza	Ekintza
---------	--------------	-------	---------

Emozio bat sentitzen dugu, horrek pentsamendu batera eramaten gaitu eta horrek hitza eta ekintza zehatz bat burutzea garrantzitsua da. Txikitatik gure autoestimua ez bada lantzen, gure hasierako emozioak ezezkorrak izango direnez, izango ditugun pentsamenduak ere hala izango dira eta burutuko ditugun ekintzak besteen kontrakoak edota gure buruaren kontrakoak izango dira.

Emozio guzti hauek identifikatzeko gorputza da gure semaforoa, zer sentitzen dut, non sentitzen ditut emozioak... Horregatik, gorputzak adierazten digunari kasu egitea garrantzitsua da, berak pistak emango dizkiogu sentitzen duguna identifikatzeko.

Oinarrizko edukiak:

- Gorputzaren kontzientzia eta bere balioa
- Gorputza, plazer iturria
- Gorputzaren balioaren bidez, higiene eta berekiko zainketa
- Norbere ezaugarri positiboak, dohainak, trebetasunen kontzientzia, norberaren autoestimua hobetzeko
- Autoestimua garrantzia harreman osasuntsu, solidario eta eraikitzaileak edukitzeko
- Sentimendu eta emozioen onarpena eta modu egokian adieraztea
- Pertsonen arteko harremanak eta batez ere lagun taldeetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzeko, lagun arteko harreman ez osasuntsuak, taldeak hartzen dituen erabakien aurrean norberaren jarrera....)
- Harremanetan kooperatzearen beharra
- Entzumen aktiboa
- ...

Saioen antolakuntza:

1. SAIOA:

- Aurkezpena

- Gorputz espresio saioa
- Gure gorputza errespetatu, zaindu eta maite dugu
- Higienearen garrantzia

2. SAIOA:

- Norberaren autoestimua
- Gizarte trebezien garrantzia
- Pertsonen arteko ezberdintasuna eta horren aberastasuna
- Ezberdinaren aurrean dudak jarrera

3.SAIOA:

- Harreman osasuntsuak eraikitzen zer behar da?
- Kooperazioaren beharra harremanetan
- Komunikatzen ikasten ari gara (kritikak eta goraipamenak, modu egokian esan eta jaso, ezetza esaten eta jasotzen, nire gustuak adierazi.....)
- Entzuketa aktiboaren beharra (nola entzuten dut?)
- Saioen ebaluaketa.

Erabiliko den materiala: *Norberaren burua eta autoestimua. Harreman solidarioak eta eraikitzaileak fitxak.*

Lehen Hezkuntza. 6. Maila

“Hezkuntza afektibo-sexuala eta Hezkidetza: Hezkidetza. Erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna”.

Programa honetan aurrera eramango den hezkuntza afektibo sexualean dugun eredia definitzeko, Felix Lopezek *eredu biografiko* deritzona erabiliko da. Eredu hori askatasun pertsonalean oinarrituta dago, baina gizartearen eta horren parte den eskolaren esku-hartzea baztertu gabe, eta hainbat balioen alde egiten du: onespeneraren etika, sexuen arteko berdintasuna, pertsonarteko leialtasuna, plazer partekatua, erantzukizun partekatua, autonomia emozionala eta joera sexualen arteko berdintasuna.

Oinarrizko edukiak:

- Sexualitatearen kontzeptu zabala (plazerraren lotutako kontzeptua, adin ezberdinetan ematen den sexualitate mota: haurtzaroan, pubertaroan, heldutan...)
- Neska mutil izatea- estereotipoak, rola
- Norberaren autoirudia eta gorputzaren ezagutza eta onarpena
- Pubertaroko aldaketak (hastear daudela)
- Familia eta gizartean dauden familia eredu ezberdinak
- Zaintzaren baloreak eta beraien eragina gizarte
- Sentimendu eta emozioen onarpena eta adierazpena
- Pertsonen arteko harremanak eta batez ere lagun taldeetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzea, lagunaren arteko harreman ez osasuntsuak, taldeak hartzen dituen erabakien aurrean norberaren jarrera....)

Saioen antolakuntza:

1. SAIOA:

- Aurkezpena

- Sexualitatea eta hezkidetzaren kontzeptu zabalak landuz. Neska eta mutil izatea: aukera ezberdinak aztertu, genero rolak, estereotipoak
- Neska eta mutilen arteko ezberdintasunak/berdintasunak.
- Publizitatean eragina neska eta mutil eraikitzean. Rol ezberdinen azterketa.
- Gure gorputza: pubertaroko aldaketak, emozioak ezagutu, adierazi eta landu.
- Autoestimua garrantzia: nire burua ezagutu, baloratu.

2. SAIOA

- Maitasun harreman desberdinak: laguntasuna, maitemina, familia.
- Hilerokoa eta lehen isurketak. Nola bizitzen ari naiz aldaketa guzti hauek?
- Pubertaroa: taldearen beharra. Aldaketa hauen aurrean taldean sortzen diren gatazkak. Hauek bideratzeko baliabideak.
- Komunikazioa: estrategiak

3. SAIOA

- Zaintza lanak gure egunerokotasunean
- Komunikazioa: nondik jasotzen dut informazioa?
- Gurasoekin komunikazioa.
- Saioen ebaluaketa.

“Tratu onak eta Genero Indarkeriaren Prebentzioa”

Indarkeria besteeikiko eta gure buruarekiko erantzukizun kontua da. Erantzukizun pertsonalaren gaia funtsezkoa da prebentziorako eta interbentzio eraginkorra lortzeko, batez ere eta hemen edozein indarkeria ekintzaren aurrean, genero indarkeria barne, izaten dugun erreakzioari errepara geniezaioke, erantzukizunaren zati bat, batzuetan zatirik handiena, indarkeriaren biktimei egozteko joera dagoelako. “Errua biktimari egozte”, hein batean edo bestean, edonolako indarkeriatan gertatzen da, eta erreakzio psikologiko logikoa da, neurri batean behintzat. Inguruan dugun munduaren segurtasuna zalantzan ez jartzeko, indarkeriazko gertakari baten berri dugunean, litekeena da biktimaren jarrera aztertzea, eta gure buruari esatea arrisku eta jarrera horiek saihesten baditugu (hala nola gaueko ordu txikietan kalera bakarrik irtetea, zenbait auzunetara joatea, etxeko atea giltzaz ixtea, janzkera “probokatzaila” izatea) indarkeria saihestuko dugula. Dena den, autodefentsa psikologikoko ekintza natural honek gure arreta biktiman antzemandako erantzukizunera bideratzen du, eta horrek egilearen jokabidea eztabaidan erabat ez jartzea eragin dezake. Horrez gain, ohiko bide asko daude genero indarkeriari edo beste edozein indarkeria ekintza esplizituki aitzakiatzeko, gizarte egitura zapaltzaile baten barruan gertatzen denean eta indarkeria “botere taldeko” kide batek “botere gutxiago duen taldeko” beste kide baten aurka erabiltzen duenean. Faktore asko erabiltzen dira genero indarkeria kasuak azaltzeko haurtzaro gogorak, faktore psikologikoak edo biktimei antzemandako konplizitatea. Hala ere, indarkeria prebenitzeak gure buruarekiko eta besteeikiko erantzukizuna eskatzen badu, garrantzitsua da faktore horiek eztabaida sozial orokorretan ez erabiltzea egileen erantzukizuna arintzeko.

DBH2. Maila. Neska eta mutilak talde bereiztuetan.

Oinarrizko edukiak neskentzat:

- Feminismoak mundua ulertzeko ematen dizkigun giltzarriak
- Neska gazteekin indarkeria sexistaren prebentzioa lantzea.
- Indarkeria sexistaren definizioan sakontzea.
- Bizi dituzten diskriminazio eta indarkeria egoerak identifikatu eta hauei aurre egiteko tresna eta bitartekoak eskaintzea.
- Emakumea izatea: rolak eta estereotipoak
- Indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen eta esperientziak trukatzeko.
- Neska gazteak beren buruen jabetza pertsonalean trebatzea.
- Norberekiko autoestimua lantzea
- Gorputz irudiarekiko bizipenen lantzea. Ezarritako edertasun ereduaren kuestionatzea.
- Beren buruen jabe izateko baliabideen lantzea eta emakume gazteei dagozkien eskubideen jabetza.
- Maitasun eredu erromantikoa ezbaian jartzea eta dituzten bizipenen gaineko hausnarketa.
- Neska gazteen arteko elkartasuna sustatzea
- Adin honetan ohikoak diren liskar eta elkarren arteko kritiken gaineko hausnarketa.
- Beraien arteko konfiantza eta solidaritatearen lantzea.

Oinarrizko edukiak mutilentzat:

- Feminismoak mundua ulertzeko ematen dizkigun giltzarriak
- Mutil izatea: rolak, estereotipoak
- Nola eraikitzen da mutil izatea gizartean. Osagai ezberdinak identifikatzeko baliabideak.
- Indarkeria eta genero irudiak
- Indarkeria: motak, nola ikasten da?
- Indarkeria: indarkeria dagoen egoerak identifikatzen ikasi.
- Sexismoa: pertsonen ordez sexuak ikusten ditugunean.
- Autodefentsa feminista: zer da? Ze nolako garrantzia dauka?
- Mutilak eta neska. Elkarrekin edo elkarren kontra.

1. saioa

- Aurkezpena
- Zer da mutil/ neska izatea?.
- Indarkeria: definitu
- Indarkeriaren eskailera osatu.
- Nola ikasten da indarkeria?
- Nola lotzen gara gizonak indarkeriarekin?
- Nesken arteko harremanak

2. saioa

- Gizon/emakume estereotipoaren osagaiak identifikatzea.

- sexismoa-pertsonen ordeaz sexuak ikusten ditugunean
- Autodefentsa feminista eta AUTodefentsa.
- Eraso egoera aztertu eta “ behatzaileen” garrantziaz jabetu.
- Ebaluaketa

DBH4. Maila eta Lanbide Hastapeneko ikasleak

“Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu aniztasuna”

Oinarrizko edukiak:

- Sexualitatearen kontzeptu zabala (sexua, sexualitatea eta praktika sexualak)
- Norberaren autoirudia eta estereotipo sexualak (konplexuak, gure autoestimuan duen eragina...)
- Sexualitatearen inguruko mitoak
- Gizarte abileziak
- Gure harremanak eta batez ere lagun taldeetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzeko, lagunaren arteko harreman ez osasuntsuak, taldeak hartzen dituen erabakien aurrean norberaren jarrera....)
- Gogo sexuala
- Orientazio sexual ezberdinak
- Sexuen arteko elkar ulertzea
- Harreman sexualak
- Bikote harremanak
- Antisorgailu metodoak
- Transmisio sexuareko gaixotasunak

Saioen antolakuntza:

1.SAIOA

- Aurkezpena
- Sexualitate kontzeptu zabala
- Sexualitatearen inguruan jasotzen dituzten mezuak: norberaren bizipenetan duten eragina aztertuz.
- Gorputza: ezagutza, autoirudia.
- Norberak bere errealitateari abiatuta edertasun ereduak eraikitzearen garrantziak. Erakargarritasunaren garrantzia.
- Autoestimua: sexualitatean, harremanetan duen garrantzia aztertzea.

2. SAIOA

- Sexualitatea aniztasunean (heterosexualitatea, homosexualitatea...)
- Neska eta mutilak: ezberdintasunak, bizipenak: elkarrekiko komunikazio estrategiak eraiki.
- Maitasuna: maitasuna: bikote harremanak: komunikazioa, elkar ulertzea, nahia desberdinen kudeaketa.
- Gizarte abileziak. Mutilen edo nesken egiteko teknika osasuntsuak.

3. SAIOA

- Praktika sexualak: gogoak, praktika desberdinak.
- Droga eta alkoholaren eragina sexualitatean

- Antisorgailuak: aukera ezberdinak, hautatzeko irizpideak

Erdi mailako zikloak eta Batxilergo 1. Maila

Oinarrizko edukiak:

- Feminismoak mundua ulertzeko ematen dizkigun giltzarriak
- Rolak eta estereotipoak
- Harreman osasuntsuak eraikitzeke tresnak: norberaren beharrak, bestea, gatazkak.
- Indarkeria sexista
- Autoestimua: horrek duen garrantzia harremanetan
- Sentimendu eta emozioen garrantzia harremanetan. Hauen identifikazioa, eta hauen adierazpen argia harreman osasuntsuak eraikitzeke.
- Tratu onak: estrategiak hauek eraikitzeke.
- Trabarik gabeko komunikazioa argia sustatuz: komunikazio ez bortitza, entzuketa aktiboa....
- Maitasunaren inguruko mitoen aurkezpena. Bikote harremanak eraikitzeke garaian duten eragin kaltegarria.

Saioen antolakuntza:

1. SAIOA

- Aurkezpena: Feminismoaren begirada harremanak hobetzeko
- Gure burua ezagutzen: nire gorputza eta emozioak.
- Nire desioak, beharrak: identifikatu eta ardurak hartu.
- Harremanak: nire harremanetan tratu ona sustatzen.
- Komunikatzen: nola komunikatzen gara? Argiak izatearen garrantzia.

2. SAIOA

- Bikote harremanak: eskatu eta eman.
- Maitasun ereduak: lagunak, familia, bikotea..
- Maitasun erromantikoa aztertzen: ezaugarriak, harremanetan dituen ondorioak
- Gure burua maitatuz.
- Indarkeria sexista: definizioa
- Indarkeria behatuz: eskolan, etxean, lagunaren artean.
- Indarkeria moeta ezberdinak: fisikoa, psikikoa, sexuala, ekonomikoa..
- Saioen ebaluaketa.

Erabiliko den materiala

- *Harreman onak eta genero indarkeria fitxak.*
- *Beldur barik* laburmetraiak.
- Artikuluak: Fina Sanz “ Los vínculos amorosos” liburutik ateratakoak.
- Laburmetraiak- Beldur Barik: 2011ko irabazleak: “ Inondik Inora” “ Bide onartezin hau suntsituz”.
- Onintza Enbeita: Berrian idatzitako artikulua: “ Egun alu hau”

IRAKASLEENTZAKO TREBAKUNTZA

HH

1. SAIOA: HEZKIDETZA, DETAILA BAKUNEN MUNDUA

- Egitasmoaren aurkezpen orokorra eta saioen egituraketa.

- Sexu-genero sistema. Genero identitatea eta rolak. Eragile bakoitzaren funtzioa eta eraginaren azterketa.
- Hezkidetza hezkuntzan.: Haur hezkuntzan hezkidetza lantzen: garapen ebolutiboa, garapen sexuala. Haurra ulertuz eta hezkidetzaren ikuspuntutik haurraren garapena landu.
- Hezitzaileen mezuak, beraientzat zailak diren egoera ezberdinak landu.
- Irakasleen arteko harremanak eredu, gelan sortu daitezkeen gatazka eta zailtasunei aurre egiteko klabeak landu.

2. SAIOA: “emozioak , haur hezkuntzan ; hezkidetzaren ikuspuntua”

- Haurtzaroko ezaugarri nagusiak.
- Emozioak haurtzaroan: neska eta mutilak nola jasotzen ditugu.
- Hezitzaileak : egoera ezberdinak aztertu.
- Begirada hezkidetzaillea sustatzeko baliabideak

LH, DBHKO ETA BATXILERGOKO IRAKASLEAK

1. SAIOA: HEZKIDETZA, DETAIL E BAKUNEN MUNDUA

- Egitasmoaren aurkezpen orokorra eta saioen egituraketa.
- Sexu-genero sistema. Genero identitatea eta rolak. Eragile bakoitzaren funtzioa eta eraginaren azterketa.
- Hezkidetza hezkuntzan.: Curriculum formala eta ez formala. Analisia eta aldaketarako bideak. Baliabide didaktikoak.
- Hezitzaileen mezuak, beraientzat zailak diren egoera ezberdinak landu.
- Irakasleen arteko harremanak eredu, gelan sortu daitezkeen gatazka eta zailtasunei aurre egiteko klabeak landu.

2. SAIOA: “NERABEEN ARTEKO TRATU TXARRAK PREBENITZEKO TRATU ONAK BULTZATZEN”

- Genero-indarkeriaren diagnosia: indarkeria motak.
- Sexismoak eragindako indarkeria hartzeko eta jasotzeko moduak.
- Nerabezaroaren ezaugarri nagusiak.
- Nerabeen arteko bikote harremanak: indarkeria mota berriak, mikromatxismoak...
- Teknologia berriak eta hauen erabilera osasuntsua.
- Emakumeen aurkako indarkeria: aktiboa eta pasiboa.
- Tratu txarrak saihesteko tratu onak.
- Tratu onak: hezkidetza, prebentzioa, sexu-heziketa, erantzunkidetasuna

GURASOENTZAKO TREBAKUNTZA

Oinarrizko Edukiak:

- Egitasmoaren aurkezpen orokorra eta saioen egituraketa.
- Neska eta mutilak elkartzea, ez da hezkidetza. Hezkidetzaren esanahia.
- Hezkidetza familian. Rolak, estereotipoak, seme alabekin duten jarrera. Ardura banaketa...
- Haurrak eta Nerabeak eta haien harremanak, neska mutil harremanak
- Gurasoek bidalitako mezuen azterketa, beraientzako zailak diren egoera ezberdinak landu.

- Gurasoen arteko harremanak eredu, familia giroan sortu daitezkeen gatazka eta zailtasunei aurre egiteko klabeak landu.
- Emozio eta sentimenduan mundua: adierazten laguntzea, gurasoen papera...
- Komunikazioa, gurasoak nola komunikatzen garen seme-alabekin.
- Gazteei trebetasun ezberdinak erakustea.
- Adimen emozionalaren garrantzia eta hau nola garatu
- Sexualitatea kontzeptu zabalaren aurkezpena
- Sexualitatea: garapen ebolutiboa (adinez adin ezaugarriak)
- Hezkuntza sexualaren oinarriak.
- Seme-alabekin hezkuntza sexuala burutzeko tresnak.
- Egoera ezberdinean haurrean interbentzio aukerak.

4.2. AHOALKULARITZA ZERBITZUAK

4.2.1 Aholkularitza Pedagogikoa

Hezkidetzaren proiektuari urte osoko lotura emateko, eta interbentzio eredu ikastetxean txertatzeko, ezinbestekoa da ikastetxeekin lotura zuzena edukitzea. Horrela, hezkuntza-komunitateak eguneroko lanean -ikasgelan dagoen begiradan, ikasleen jarraipenean, gurasoekiko harremanetan-, hezkidetzak eskaintzen dizkigun baliabideak erabiltzeko ezinbestekoa da ikastetxe guztietan aholkularitza pedagogikoa ezartzea.

Urte osorako aholkularitza pedagogikoa planteatzen da, eta ondorengo ardatzak jarraituko ditu:

- Ikuspegi sistemikoa
- Garapen psikologia eta psikoterapia humanista
- Hezkidetzaren ikuspuntua
- Adimen emozionala

Hau da, aholkularitzak eskainiko luke espazio bat, eskolako harremanetan, ikasleen artean, irakasle eta ikasleen artean sortzen diren gatazkak, ulertzeko eta bideratzeko.

Esku-hartzearen fase ezberdinak:

1. fasea: kontsulta jaso (posta elektronikoz, telefonoz, edota aurrez aurre). Ahalik eta informazio gehien jasotzea da helburua, eskaerari behar den erantzuna emateko.

2. fasea: Eskaera baloratu, ondorengo irtenbideak emanaz:

- Momentuko erantzunarekin bideratu
- Beste zerbitzuetara bideratu
- Eskaera egin duenari zuzenduta, hura baloratu ondoren, lan egiteko helburuak zehaztu eta lanean hasi. Honetarako ondorengo bitartekariak erabiliko dira:
 - Fidagarria eta zientifikoa den informazio zehatza ematea
 - Beharrezko materiala
 - Udaletxeko beste zerbitzuetara bideratu

4.2.2 Aholkularitza herriko hainbat esparrutan

Egitasmo integral batez ari bagara, ezinbestekoa da aholkularitza ere eskaintzea herriko hainbat esparrutan. **Aholkularitzak honako helburua izango du:** Profesionalei

beraien eguneroko lanean ikasitakoa txertatzen lagundu eta bere egunerokotasunean egon daitezkeen zailtasunei aurre egiteko laguntza eman.

Zeini zuzenduta:

- Aisialdiko profesionalei
- Kirol Arloko Hezitzaileei
- Udaleko hainbat sailei: Berdintasuna, Gazteria

4.3. EGITASMOAREN GIZARTERATZEA

Proiektu honetan garrantzia eman nahi diogu gizarteratzeari eta proiektuaren bistaratzeari. Horretarako ondorengo ekintza proposatu nahi dugu:

- Proiektua bera, bere osotasunean gizarteratzeko, **Azpeitiko Berdintasun Foroan eta Emakumeen mahaian parte hartzea planteatzen da**, urtean hiru alditan bilduz hezkidetzaren gaineko hausnarketak eta ekarpenak egiteko, eta beharraren arabera koordinazio zuzena egiteko.

5. 2022-23 Ikasturteetarako Lan-Plana (orduekin)

HEZKUNTZA ESPARRU FORMALEAN

Herrian dauden ikastetxe guztietan esku hartzea da helburua

Saioak 2 ordukoak dira eta, ikasleen kasuan, dagokion mailako gela guztietan burutuko dira.

Irakasleak: Irakasleentzat 4 orduko trebakuntza-saioak. Hezkidetzaren inguruan eta sare sozialen inguruko edukiak eskainiz.

- **Haur eskola**
- **Ikastetxe bakoitzak aukeratzen duen ziklo eta espezialitatean 6 ordutako ikastaro trinkoa.**

Ikasleak:

- **Lehen hezkuntzako 4. Mailako ikasleekin 6 orduko ikastaroa**
- Lehen Hezkuntzan 6.mailako ikasleekin 6 orduko ikastaroa.
- DBH 2.mailan 4 orduko ikastaroa modu bananduan , hau da, neskak alde batetik eta mutilak beste aldetik. Bakoitzean hezitzaile bat egongo da.
- DBH 4.mailako ikasleekin 6 orduko ikastaroa .
- Batxilergoan 1. mailako ikasleekin 4 orduko ikastaroa .
- Lanbide Hastapeneko ikasleekin 4 orduko ikastaroa.

Gurasoak:

- Haur hezkuntzan: 2 orduko saio bat ikastetxe bakoitzean.
- Lehen hezkuntzan: 4 eta 6. mailako ikasleen gurasoekin, 2 orduko saio bat ikastetxe bakoitzean.
- Bigarren hezkuntzan: 2. eta 4. mailako ikasleen gurasoekin 2 orduko saio bat ikastetxe bakoitzean.

AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIOA (Guztira 22 ordu)

- Ikastetxe guztiei zuzendutakoa; bereziki ikastetxe bakoitzeko hezkidetzaren egitasmo arduradunari eta orientatzaileei. Baita ere guraso, ikasle eta

irakasleei.

- Herri mailan, trebakuntzatan parte hartzen duten elkarteko partaide, aisialdi eta kirol arloko begiraleei.
- Udaleko arlo ezberdinetako teknikariei.
- Aholkularitza herriko talde ezberdinei eskainiko zaie: irakasleei, emakumeei, gurasoei, gazteei, udaleko teknikariei...

GIZARTERATZEA :

- Berdintasun Foroa: 3 hilabetero bilera bat
- Emakume Mahaia

6. KRONOGRAMA ETA KOORDINAZIOA

Kronograma

	JARDUERA	IRAIL A- URRIA	URRIA- ABENDU A	URTARRIL A-APIRILA	MAIATZA -EKAINA
HEZKUNTZA	Ikastetxeekin egutegia osatu				
	Interbentzioa Ikastetxeetan				
	Hezkuntza Ez formala interbentzioa				
	Aholkularitza				
UDALA	Hasierako koordinazioa				
	Programaren jarraipena				
	Erdiko ebaluaketa				
	Azken ebaluaketa				

Kronograman agertzen diren datak ez dira behin betikoak. Hau da, egutegia osatzerakoan ikastetxeekin harremanetan egiten delako.

Koordinazioa

Programa hau behin martxan jarrita, Harremanak Elkarte eta Berdintasuneko Departamenduaren arteko koordinazioa egin behar da programaren ardura duen Berdintasuneko Teknikariaren bidez. Lan horietarako Harremanak Elkartetik Mireia Agirre Uriak hartuko du ardura.

Harremanak elkarrekin konpromisoa hartzen du Udalaren esanetara egongo dela programa gauzatzearen ondorioz izan behar diren bilera orotarako. Eta konpromisoa hartzen du txosten hauek egiteko:

Memoria bi urtean (ekainean eta abenduan), datu hauek adierazita: ikastetxeetan burututako jardueren erregistroa eta jardueraren urteroko ebaluazio-sistematizazioa, non programaren garapena, helburuak, ekintzei buruzko fitxak, metodologia eta hausnarketa orokorrak jasoko diren.

Konpondu/zuzendu daitezkeen esku-hartzeen neurri zuzentzaileak ere adieraziko dira, beharrezkoa bada. Datuak sexuaren arabera bananduko dira. Memoretan jaso behar da urtean zehar lan egindako orduak nola banatu diren.

Planteatutako proiektua aurrera eramateko honakoa izango da lan taldea:

Hezkidetzako egitasmoaren zuzendariak:

Ana Eloseggi, Olatz Berastegi eta Mireia Agirre

Hezkuntza arduraduna:

Ana Eloseggi, Olatz Berastegi eta Mireia Agirre

Ikasleekin eta irakasleekin lanean:

Ana Eloseggi

Olatz Berastegi

Aitziber Estonba

Mireia Agirre

Miren Aiertza

Ane Arenas

Jon Imanol Etxabe

Eneko Sarasua

Maddi Egizabal

Aiora Zinkunegi

Enara Sagarzazu

Proiektuaren Arduradun Teknikoa:

Mireia Agirre Uri

Aholkularitza Pedagogikoaren arduraduna:

Ana Eloseggi eta Olatz Berastegi

Komunikazio, marketin eta sare sozialen arduraduna:

Itziar Elizondo

7. METODOLOGIA

Proiektuaren helburuak eta edukiak aurrera eramateko erabiltzen dugun metodologia parte-hartzailea, aktiboa eta dinamikoa da; Azpeitiko herrira egokitua eta herritarren beharrei erantzuneko diena.

7.1. IKASLEEKIN ERABILIKO DEN METODOLOGIA

Ikasgelako metodologiak, jakina, **aktiboa eta parte-hartzailea** izan behar du. Ikasleen interesetatik eta ezagutzetatik abiatuta, eta ezagutzak, esperientziak eta sentimenduak adierazteko, antolatzeke, partekatzeke eta horiei buruz gogoeta egiteko aukera eman nahi dugu. Horregatik, gure proposamena, ezinbestean, irekia izango da: jarraibideak eta baliabideak emanez, baina edukiak ikasleak, unean-unean, egoki iristen dioten moduan aldatzeko, osatzeko edo indartzeko aukera emango du ere.

Deialdiarekin bat eginez, DBH2. Mailan modu bereiztuan egingo dugu lan. Izan ere, hezkidetzaren proiektuen ibilbideak erakutsi digute neskek eta mutilek konfidantzako eremuak eskatzen dituztela batzuetan.

Ikasleek parte-hartze aktiboa izatea zaila da, ziur aski “gainditu gabeko ikasgaia” delako. Gure ikastetxeetan benetako parte-hartzea ahalbidetzen duten bideak edukitzea ohikoa ez delako, eta ikasgeletan ere, hainbat arrazoi direla medio, berdina gertatzen da. Hala ere, posible da balio hezkuntza jorrazterakoan, oro har, hitzaldiak, ikasleei soilik entzuteko edo galdera jakin batzuei erantzuteko aukera ematen dieten azalpenak saihestea. Aztertu, kritikatu, hausnartu eta galdetu dezaten ahaleginduko gara; galderak itzuliz, eta beren gogoetei buruz galdetuz, gogoeta egiten eta galdetzen jarrai dezaten. Errespetu handiz, ez dizkiegu erantzunak bakarrik eman nahi, haien buruari galderak egitea nahi dugu. Azkenean, ikasleek gutxienez zalantzak izatea eta analisi kritikorako ahalmena hobetzea bilatu nahi dugu. Honez gain, ondorengo irizpideak ere kontutan hartuko dira:

- Ludikoa izatea.
- Norberari bere gorputza entzuten eta hausnarketa bideratzen laguntzea.
- Talde lana bultzatzea.

Horretarako, jolasetatik eta erabat ludikoak diren ekintzetatik abiatuko da, haientzat saioak erakargarriak izan daitezen. Era honetan, klaseak oso dinamikoak izango dira eta egunerokotasun ukituak izango dituzte.

Bestalde, jolas edo dinamika hauen bitartez haien **bizipenak lantzea eta kanporatzea izango da helburua**, horixe baita era bakarra hezkidetzaren eta sexualitatea bezalako gaietan eragiteko. Haien bizipenetatik abiatutako hausnarketa bideratuz, haien emozioak, haien gorputzean sentitzen dituzten gauzak.... landuko dira, haientzat une honetan errealak suertatzen diren gaiak eta haientzat baliagarriak diren hausnarketak burutuz. Gai horiek lantzeko derrigorrezkoa da aipatutako metodologia erabiltzea, bestela egindako lan guztia ez luke ezertarako balio izango, abiapuntua beraien errealitatea behar du izan, eta ez telebistan edo helduengandik jasotzen dituzten mezuak.

Horrez gain, eta ezarritako helburuak lortzeko, taldea nahiz bakarkako lana bultzatzeko teknika ezberdinak erabiliko dira:

- Ideia zaparradak

- Marrazkiak
- Rol-playinak
- Antzerkiak
- Egoera ezberdinen hausnarketak
- Audiobisualak
- Eztabaida taldeak
- Testu ezberdinen lanketa
- Jolasak

Horrela, erabiliko diren teknika ezberdinekin, gauza ezberdinak lantzea lortzen da: hasieran aipatutako dinamika “bibentzialek”, gorputza entzuten erakusten dute; teknika parte-hartzaileek aldiz, gure jarrerak eta dugun informazioa kontrastatzen eta era kritikoan hausnartzen laguntzen dute.

Dena den, denen parte-hartzea helburu izanik, garrantzizkotzat jotzen da, funtzionatuko den eran funtzionatzea; hau da, lehendabizi, bakarka edo talde txikitik lana burutuko da. Argi baitago horrek eramaten duela norberak bere behar edota bizipenetan hausnartzera. Ondoren, behin bakoitzak lan pertsonal hori burutu duenean, talde txikitik amankomunean jarriko da, eta ondoren talde handian. Horrek zera lortzea du helburu: era guztietako pertsonen parte hartzeko aukera edukitzea. Ozenean hitz egiten ausartzen ez direnen iritzia talde txikian ematea landuko baita.

Bestalde, aipatu soilik hezitzaileak une guztietan **ikasleekiko izango duen jarrera bakoitzaren izaeraren eta garapenean bizi duen unearen errespetuan oinarrituko dela**. Hau da, klaseko inor ez da behartuko parte hartzera. Alderantziz: hasierako enkoadraketa egin ondoren, hots, zertaz hitz egingo den azaltzerakoan, prest sentitzen ez den, edo deseroso sentitu daitekeen, ikasleari saioetatik ateratzeko aukera emango zaio; edo bestela, bertan geldituz gero, bere gelakoek duten parte-hartzea zalantzan ez jartzea eskatuko zaie. Norberaren hausnarketa lanetan, errespetua derrigorrezkoa da etekinak lortu ahal izateko, eta taldean lan egingo dela kontutan edukita, bai hezitzaileak baita ikasleek ere, horri behar bezalako garrantzia eman behar zaio.

7.2. GURASO ETA IRAKASLEEKIN ERABILIKO DEN METODOLOGIA

Ikasleekin egiten den lana alferrikakoa izan daiteke, gero landutakoa familian jarraipena izan ezean. Horretarako familiari etxean gai hauek jorratzeko giltzarriak eta ideiak eskaini behar zaizkie, haiek galduta senti ez daitezen. Beraz, atal honetan lan hau nola eramango den aurrera azalduko da.

Informazioa eskaintzeaz gain, **ikasle edo seme-alabekiko enpatia sortzen** erakustea oso garrantzitsua izango da. Hori dela eta, eragile hauekin planteatu diren helburuak lantzeko, metodologiak ondorengo irizpideak jarraituko ditu:

- Hausnarketa eta beraien bizipenenekin konektatzen lagunduko du. Honetarako, teknika ezberdinak erabiliko dira, hala nola, rol-playing, istorio kontaketak, bisualizazioak...Teknika horiek, **guraso eta irakasleei beraien bizipenekin konektatzen laguntzen diete. Horrela, ikasle edo seme-alabak ulertzea errazagoa izango da.** Hots, dinamika horien bidez beraien ikasle edo seme-alabekiko enpatia sortu nahi da. Horrela, beraiek ulertzea, eta bizitzen ari diren momentuan laguntzea errazagoa egingo zaielako.
- Hezkuntzarekin eta bereziki lan honekin zuzenean loturik dagoen gai bat lantzea ere beharrezkoa da: emozioen identifikazio eta kudeaketa. Horiek baitira jokabide azpian dauden motorrak. Pertsona osasuntsuak, enpatikoak, ulerkorak, errespetuan oinarritutako jokabideak izateko, emozioak identifikatu, ulertu eta hauek kudeatze lana egiten ikasi behar dugu, eta familia eta irakasleak honetan zeresan handia dute.
- Bestalde, gurasoek eta irakasleek hezkidetzan eta sexualitatearen inguruan duten **informazioa ere landuko da.** Horretarako, hartu-eman oso garrantzitsua izango da. Hau da, guk eskaintzen diegun informazioa, beraientzat baliagarria suertatzen dadin, beraien zalantzak, galderak, argituko dira. Horregatik elkarriketa eta komunikazioa errazteko teknika parte-hartzaileak erabiliko dira: eztabaida taldeak, “philips 66” taldeak, “hitz zaparrada” teknika... Teknika horiek elkarriketa bultzatzen dute, hartu-eman erraztuz.
- Bestalde, familian, baita ikastetxean ere bizi diren **egoerak eta giroa gaizteentzat erreferenteak direla kontutan edukita, bakoitzak horiek modu kritikoan hausnartzea** garrantzitsua ikusten dugu, hau baita lehendabiziko pausua aldatzea emateko. Hau da, norbera bere etxean edo bere ikasleekin, hartzen dituen hainbat jarrera, etxeko lanen antolaketaren ingurukoak, sexualitateari buruzko hainbat aurreiritzien ingurukoak, neska eta mutilen harremanen ingurukoak.... azterketa burutzea da asmoa, hor sor daitezkeen erantzun kaltegarriak eta erreferente ezezkorrak ekiditeko asmoz.
- Azken urteetan bi kolektibo horiekin egin dugun lanak erakutsi digu, haien arteko **informazio eta bizipenen elkar trukaketa oso baliotsua dela.** Denek agertu izan dute saioak amaitzerakoan, bere guraso edo irakasle lanetan aritzen oso bakarrik sentitzen direla. Era hortaz, beste guztiekin haien kezkek, zalantzak, buruhausteak... konpartitzea oso lasaigarria bilakatzen dela, eta dagokien lanean aritzeko indar handia ematen diela.

Horrez gain, guraso eta irakasle izatea erraza ez bada ere, komunikabideek eta norberak jasotako hezkuntzak izugarritzko pisua du guraso eta irakasle lanetan. Horregatik, gizartean planteatzen diren hainbat topiko, estereotipo, aurreiritziak... modu kritikoan aztertu eta landu nahi dira; guraso eta irakasleek, etxean edo gelan, horrelakoak agertzerakoan tresnak izan ditzaten horiei modu egokian erantzuna emateko.

8.EBALUAZIOA

Egitasmo honen ebaluaketarako programaren hartzaile ezberdinak kontutan hartuko dira. Hau da, ebaluaketa irakasleei, ikasleei eta gurasoei luzatuko eta zuzenduko zaie. Ebaluaketan bi aspektu jasoko dira:

- Jasotzaileen asetze maila.
- Programaren inplementazioak duen inpaktua.

8.1. IKASLEEN EBALUAZIOA

Ikasleen ebaluaketarako, bi oinarri hartuko dira, bata hezitzaileak tailer bakoitza bukatzen denean egingo duen ebaluaketa, eta bestea ikasleek tailer bakoitzaren amaieran beteko duten inkesta.

Asetze maila ebaluatzeko ondorengo adierazleak kontutan hartuko dira:

- Programan sentitutako erosotasuna.
- Programan jasotako informazioaren baliagarritasuna.
- Jasotako baliabideen erabilgarritasuna.
- Haurrek eta gazteek ekintzen aurrean izandako jarrera eta ekintzen arrakasta
- Ekintza guztiak gauzatu diren ala ez.
- Eduki teorikoak hezkuntzara eta haur eta gazteengana egokituta egon diren ala ez.

Programaren inpaktua baloratzeko adierazleak:

- Hezkidetzaren ekarpenen balorazioa.
- Harreman onak eraikitzeke jasotako informazioaren balioa.
- Nesken presentziari eta beraien rolei protagonismoa eman zaien ala ez.
- Euskarri pedagogikoen erabilgarritasuna (hezitzaile, irakasle eta gazteentzat)
- Edukien egokitzapena helburuei dagokionez
- Haur eta gazteen arteko harremanak.

Hori jasotzeko, hezitzaile bakoitzak saio bakoitzaren amaieran gai zerrenda bat landuko da eta hezitzaile bakoitzak iritziak idatziz jasoko ditu. Ondorengo hau izango da eguneroko ebaluaketa burutzeko erabiliko den gai zerrenda:

- Eguneroko helburuak errepetatu eta bete diren ala ez jasotzea
- Ekintzak baloratzea (materiala egokia, gelaren egokitasuna dinamikarako, gazteek horren aurrean izan duten jarrera, arrakasta...)
- Gazteek dituzten beharren detekzioa eta haien harremanak ebaluatzea.
- Hezitzaileen sentsazioak.
- Erabilitako metodologia
- Proposamenak

Eta ikasle guztiei inkesta bat pasako zaie.

8.2. HAUR ETA GAZTEEN EBALUAZIOA

- Programan parte hartu duten ikasle guztiei ebaluaketa fitxa bat pasatuko zaie, ikastetxean bertan beteko dutena.
- Hezitzaileek hein handi batean, gazteekin komunikazioa landu behar izango dute, horrela haur eta gazteen iritziak egunez egun hoberen detektatzeko.

- Baina, programaren bukaeran, eta bakoitzaren iritzia, eta kritikak lasaitasunez idatzi dezaten, ebaluaketa fitxa eskainiko zaie.

8.3. IRAKASLEEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Irakasleei eskainitako formazioa amaitu ondoren, ikastaroa ebaluatzeko fitxa pasatuko zaie. Ebaluaketa honetan adierazleak ondorengo hauek izango dira:

- Partehartzaileen interesa
- Antolakuntza maila egokia izan den
- Edukin teorikoak euren beharretara egokitu diren ala ez
- Euskarri pedagogikoen erabilgarritasuna.
- Edukien egokitzapena helburuei dagokionez
- Ekintza guztiak gauzatu diren ala ez
- Ikastaroan erabilitako metodologia
- Ikastaroaren iraupena eta ordutegia
- Parte-hartzaileen ebaluazioa

8.4. GURASOEN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Gurasoen saioak amaitu ondoren ebaluaketa fitxa bat pasako zaie. Ebaluaketa honetarako adierazleak ondorengo hauek izango dira:

- Antolakuntza maila egokia izan den
- Edukin teorikoak beraien seme alabekiko heziketan duten erabilgarritasuna
- Edukien egokitzapena helburuei dagokionez
- Ikastaroan erabilitako metodologia.
- Ikastaroaren iraupena eta ordutegia.

8.5. IKASTETXEEKIN EBALUAZIO OROKORRA

Ikastetxe bakoitzean ikasleekin saioak amaitutakoan tutoreekin ebaluazio bilera burutuko da, bertan partehartzaileen ebaluaketa fitxen emaitzak eta gure inpresioak landuko direlarik. Bestalde, ikastetxe bakoitzean ikasturtea amaitu baino lehen ebaluaketa bilera bat egingo da.

Ebaluazio Kualitatiboa

Hasieran aipatzen den moduan ebaluaketan asetzea eta inpaktua neurtzea oso garrantzitsua da, programaren eragina ikusteko. Hau dela eta, lehenengo bi urteak burutu eta gero, inpaktua ezagutzeko, eztabaida taldeak egitea proposatzen da:

- LHko ikasleekin
- DBH lehenengo ziklokoekin
- DBHko bigarren ziklokoekin
- Batxilergo eta erdi mailako zikloak
- Gurasoak
- Irakasleak

Bertan programak bi urtetan eragindako ikusiko da eta inkesta kuantitatiboekin alderatuz ebaluaketa osatuko da.

8.6. UDALAREKIN EBALUAZIOA

Udalarekin hilean behin koordinazio bilerak egitea proposatzen da, ebaluaketa irekia eginez. Ikasturtea zehar memoria bat egingo da, ikasturte guztiko lana eta parte hartzaileen ebaluaketa bertan jasoz. Bertan adieraziko dira parte hartu duen talde kopurua eta kolektibo bakoitzarekin zenbat ordutan aritu diren. Horrez gain, hurrengo ikasturteari begira jardueren proposamen bat ere sartuko da. Txosten honetan talde teknikoaren gainbegiraketaren zehaztasunak eta alderdi esanguratsuenak aipatuko dira, horrela proiektuan hobekuntzak sartzeko. Hau izango da txosten honen gidoia:

- Ikasturteko interbentzioa hezkuntza formalean eta ez formalean
- Ikastetxe edo interbentzio gune bakoitzeko ebaluaketako datuak asetzea eta inpaktua neurtuz)
- Landutako helburuak ebaluaketan jasotako datuekin.
- Ondorioak
- Proposamenak